

**OINARRIZKO CURRICULUM  
DISEINUA**

**ANIMAZIO TURISTIKOKO**

**GOI-MAILAKO TEKNIKARIA**

## AURKIBIDEA

1. Tituluaren identifikazioa.....	4
1.1. Izena.....	4
1.2. Maila.....	4
1.3. Heziketa-zikloaren iraupena.....	4
2. Erreferentea (lanbide-perfila).....	4
2.1. Gaitasun orokorra.....	4
2.1.1. Lanbide-gaitasunak.....	4
2.1.2. Erantzukizuna eta autonomia.....	4
2.2. Lanbide-burutzapenak eta lanbide-portaerak.....	5
2.3. Produkzio-prozesuko kokapena.....	6
3. Irakaskuntzak.....	8
3.1. Heziketa-zikloaren helburu orokorrak.....	8
3.2. Lanbide-moduluak.....	8
1.Lanbide-modulua: Astialdiko eta gizarte-heziketako enpresa Txikietan antolamendua eta kudeaketa.....	8
2.Lanbide-modulua: Animaziorako komunikazio-teknikak.....	15
3.Lanbide-modulua: Animaziorako jokoak eta jolas-ekintza fisikoak.....	20
4.Lanbide-modulua: Kultur jarduerak eta baliabideak.....	25
5.Lanbide-modulua: Turismoaren esparruko animazioa.....	29
6.Lanbide-modulua: Atzerriko hizkuntza.....	34
7.Lanbide-modulua: Atzerriko bigarren hizkuntza.....	37
8.Lanbide-modulua: Lan-prestakuntza eta orientabidea.....	40
9.Lanbide-modulua: Kalitatea eta etengabeko hobekuntza.....	44
10.Lanbide-modulua: Lan-prestakuntza eta-orientabidea.....	46
3.3. Heziketa-zikloaren sekuentziarioa eta denboralizazioa.....	48
3.3.1. Iraupenak.....	48
3.3.2. Sekuentziarioa.....	49
4. Irakasleak.....	49
4.1. “Animazio turistikoa” heziketa-zikloko lanbide-moduluetan irakaskuntza-atribuzioa duten irakasleen espezialitateak.....	49
4.2. Titulazioen baliokidetasunak irakaskuntzan aritzeko.....	50
5. Irakaskuntzak emateko gutxieneko baldintzak.....	50
5.1. Espazioak.....	50
6. Sarbideak eta/edo ibilbideak.....	51

6.1 Oinarrizko Lanbide Heziketa.....	51
6.2. Unibertsitate-ikasketetarako sarbidea.....	51
7. Konbalidazioak eta korrespondentziak.....	52
7.1. Lanerako Lanbide Heziketarekin konbalida daitezkeen lanbide-moduluak.....	52
7.2. Lan-praktikarekin korrespondentzia izan dezaketen lanbide-moduluak.....	52

## **1. Tituluaren identifikazioa**

- 1.1. Izena: "Animazio turistikoa".
- 1.2. Maila: Goi-mailako Berariazko Lanbide Heziketa.
- 1.3. Iraupena: 1.400 ordu.

## **2. Erreferentea (lanbide-perfila)**

### 2.1. Gaitasun orokorra

Hona hemen produkzio-sistemaren lanbide-prestakuntzarako eskakizun orokorrak teknikari honentzat:

- Animazio-eremuak edo -departamentuak administratzea, jardueren programazio orokorra zehaztea, ezagutzera ematea eta egokitzea eta animazio turistikorako jarduerak koordinatzea eta burutzea.

Teknikari honek, betiere, lizentziatuen edo diplomatuen ikuskapen orokorrarekin jardungo du.

#### 2.1.1. Lanbide-gaitasunak

- Establezimenduaren helburuetara, ingurunera eta eskaeraren itxaropenetara egokituko diren animazio turistikoko planak eta programak zehaztea eta interes ekonomikoak eta aisiakoak bateratzea.
- Gau-emanaldiak, ikuskizunak, kirol- eta jolas-jarduerak eta kultur jarduerak antolatu, zuzendu eta ebaluatzea.
- Taldeak dinamizatzeko teknikak aplikatzea eta garatutako jarduera-motari eta partaideei egokitzea, aisialdiaz eta denbora libreaz gozatzea ahalbidetu eta, hala badagokio, publikoaren arreta mantenduko den moduan.
- Dagokion eskumenaren ondoriozko jarduerak burutzeko modua eta berariazko abileziak erakustea eta, eskatzen zaionean, laguntza teknikoak ematea.
- Materialak eta ekipoak antolatu eta gainbegiratzea eta horien erabilpena kontrolatzea.
- Lanean sen artistikoa izatea, inprobisatzeko ahalmena erakustea, irudimena eta sormena izatea eta ekimenez jokatzeko, bere lanbide-gaitasunak ahalmena ematen dion neurriraino.
- Ahalegin fisiko luzea jasatea.
- Inguruneari eta publiko jakin bati egokitzea eta bezeroen itxaropenak ulertzea.
- Enpresaren irudia bai lanaren emaitzan bai kanpoko harremanetan hedatu eta islatzea.
- Kontingentziak sortzen direnean, konponbide alternatiboak ematea eta bere eskumena gainditzen duten arazoak mailaz goragokoei jakinaraztea.
- Larrialdikoa izan daitekeen egoeran jardutean, hala badagokio, laguntza jasotzen ari den taldeari bizkor eta lasaitasunez alarma-seinaleak ematea.
- Bere lana eta bere gain izan dezakeen taldearena antolatzea, jarrera tolerante eta partaidetzazkoaz. Lana metodoz egitea eta denbora zuhertasunez kudeatzea.
- Arazo orokor batetik hura sorrarazi duten xehetasun bereziak ondorioztatzea eta orokortasunera berori osatzen duten elementuen bitartez iristea (ahalmen deduktiboa eta induktiboa).
- Lanean komunikazio eraginkorra mantentzea, bereziki, beste departamentu edo establezimendu batzuekin koordinazio handia eskatzen duten zerbitzuetan.
- Gutxienez, atzerriko bi hizkuntzatan komunikatzea.

#### 2.1.2. Erantzukizuna eta autonomia

Teknikari honi, goragoko maila duten teknikariek esleitutako funtzioen eta helburuen esparruan eta dagozkion lanerako arloetan, oro har, ondoko autonomia-gaitasunak eskatuko zaizkio:

- Informazioa bildu eta antolatzea.
- Bildutako datuak aztertzea.
- Emandako aurrekontuen arabera planak, programak eta jarduerak diseinatzea.
- Txostenak lantzea.
- Animazio turistikoko programen eta jardueren materialak eta giza taldeak prestatu eta koordinatzea.
- Kontratatutako beharrek pertsonekin negoziatzea.
- Prestatutako dagoeneko jarduerak burutzea.
- Planak, programak eta jarduerak ebaluatu eta sustatzea.
- Dagokion erantzukizun-arloko aurrekontuak landu eta prestatzea.

Teknikari hau establezimenduko zuzendaritzak edo organismo publiko aginpidedunak (turismo edo kulturako zinegotzigoa, probintzia-aldundia...) koordinatuko du. Bere kargura izango duen giza talde bat (arloko animatzaileak, kirol-monitoreak...) koordinatzea dezake.

Enpresatik kanpo etengabe egongo da harremanetan, batez ere, jarduera jakin batzuk egiteko kontratatutako giza euren zerbitzuak eskaintzen dituzten pertsonekin (artisansak, gidari turistikoak, ikus-entzunezkoetako adituak, kirol-adituak, hainbat motatako teknikariak...). Beste departamentu batzuekin (jaketxea, harrera, atxikitako zinegotzigoak...) harremanetan jarriko da.

## 2.2. Lanbide-burutzapenak eta lanbide-portaerak

Ondokoak dira profesionalak burutu eta/edo azaldu behar dituen burutzapen eta portaera esanguratsuenak:

### 1. Astialdiko eta gizarte-heziketako enpresa txikiak antolatu eta kudeatzea.

- Sektoreko enpresa txiki, eremu edo departamentu bat jartzeko eta/edo helburuak eta eskain daitezkeen jarduerak ezartzeko aukera ebaluatzea ahalbidetuko duten ikasketak egiteko beharrezkoa den informazioa lortu, antolatu eta baloratzea, prozedura eta teknika egokiak erabilia.
- Sektoreko enpresa txiki baten eraketa finkatu eta kudeatzea indarrean dagoen legeria betez.
- Jardueren programa orokorra definitzea ezarritako helburuei eta eskuragarri dauden baliabideei jarraiki.
- Giza baliabideak, materialak eta ekonomikoak antolatu eta kudeatzea eta baliabide horien esleipena ezarritako helburuei jarraiki optimizatzea.
- Jardueraren garapenak sortutako dokumentazioa kudeatu eta antolatzea, prozedura administratiboak aplikatuz eta indarrean dagoen legeriari jarraiki.
- Jardueren programa kontrolatu eta ebaluatzea eta bere burutzapen zuzena eta egin beharreko zerbitzuaren kalitatea ziurtatzea.
- Sustapen-ekintzak kudeatu eta kontrolatzea aurrekontuari eta ezarritako helburuei jarraiki.

### 2. Gau-emanaldiak eta ikuskizunak animatzeko jarduerak antolatzea, burutzea eta kontrolatzea.

- Programazio orokorrera egokituko diren gau-emanaldi eta ikuskizunak zehaztea, denetakoak eta erakargarriak izango diren moduan.
- Zehaztutako lehiaketak, ikuskizunak eta saioak egiteko giza baliabideak eta materialak antolatu eta kudeatzea, horien garapen egokia ziurtatuta.
- Gau-emanaldiak eta ikuskizunak dinamizatu eta gidatzea, erakargarriak izango diren moduan.
- Jardueren garapena eta emaitzak ebaluatzea, eskariaren atsegin-maila eta aurreikusitako helburuak zein neurritaraino bete diren jakingo den moduan.

### 3. Jokoak eta jolas-ekintza fisikoak erakutsi eta dinamizatzea.

- Programazio orokorretik abiatuta, erabiltzaileen ezaugarrietara eta interesetara eta garatuko diren ingurunera egokitutako jolas-jarduerak zehaztea.
- Instalazioen eta baliabideen eskuragarritasuna bermatzea eta horien doikuntza gainbegiratzea, beraien egokitasuna, segurtasuna eta, hala badagokio, erabilera-parametroen balio zuzenak ziurtatuta.
- Jolasak antolatu, zuzendu eta dinamizatzea, animazio-metodologia behar bezala erabilia, partaideentzako seguruak eta atseginak izango diren moduan.
- Jolasen arauak eta burutzeko modua erakustea, horien ezaugarrien eta partaideenen arabera egokituta.
- Dagokion mailan, jolas eta kiroleko txapelketak, lehiaketak eta gertakariak antolatu, garatu eta zuzentzea.

#### *4. Kultur animazioko jarduerak antolatzea, burutzea eta kontrolatzea.*

- Kultur animazioko jarduerak zehaztea, eskariaren itxaropenetara eta establezimenduaren edo erakundearen helburuetara egokituko diren moduan.
- Jarduerak egiteko beharrezko giza baliabideak eta materialak antolatzea, horiek erabat beteko direla eta erakargarriak izango direla zirtatuko den moduan.
- Kultur animazioko jarduerak zuzendu eta dinamizatzea, erakargarriak izango diren moduan.
- Bisitaldi, irteera edo ibilaldi kulturalak dinamizatzea, taldea betiere seguru, behar bezala informatuta, arreta jasota eta entretenituta sentituko den moduan.
- Jardueren emaitzak ebaluatzea, eskariaren atsegin-maila eta aurreikusitako helburuak zein neurritaraino bete diren jakingo den moduan.

### 2.3. Produksio-prozesuko kokapena

- Lanbide- eta lan-ingurunea

Teknikari honek “Ostalaritza eta turismoaren” sektorean jardungo du bereziki. Hala ere, denbora librearen animazioan eta orientazioan ere izan dezake lekua, gizarte-zerbitzuen eta kirol- eta jolas-jardueren barruan.

Lanean jardungo dueneko azpisektore nagusia ostatu turistikoena da: ohiko hotelak, kanpalekuak, urbanizazio turistikoak, oporretako hiriak eta abar. Aisiarekin zerikusia duten mota orotako enpresetan ere egin dezake lan: turismo alternatiboko enpresak, kirol-klubak, ikastaroak antolatzen dituzten erakundeak, kanpamentuak eta abar.

Gainera, profesional honek autonomo gisa lan egin ahal izango du, kontratatzaile nagusiak lehen aipatutako enpresak izanik. Animazio-zerbitzuetako enpresa txiki baten zuzendari gisa ere jardun dezake, beste teknikari batzuk azpikontratatuta dituela.

Ziur aski, hotel-animazioko goi-mailako teknikaria turismo- edo hotel-establezimendu baten lan-taldean sartuko da. Mailaz goragoko agintari baten menpe egongo da, haren agindu orokorrak jasoko ditu eta beharrezko informazioa berari emango dio.

Bere kargura animatzaile espezializatuen talde bat eduki ahal izango du. Halakoetan, lana antolatzeaz eta profesional bakoitzari zuzendutako jarduerak betetzen dituela egiaztatzeaz arduratuko da.

Establezimenduko arloen edo departamentuen artean jarduerak koordinatzea eskatzen duten lanetan lagunduko du.

Ustekabeko egoera ugari sortzen direnez eta mota orotako animazio-jarduerak eskatu ahal izango dizkiotenez (talde-motaren arabera), profesional honek sormen, egonkortasun emozional eta inprobisatzeko eta erantzuteko ahalmen handia izan beharko du.

- Ingurune funtzionala eta teknologikoa

Hoteletako animazio turistikoko goi-mailako teknikariak ondoko funtzioak/azpifuntzioak beteko ditu: animazio-zerbitzuak diseinatu eta antolatzea, bezeroarenganako arreta, administrazio-kudeaketa eta sustapen-ekintzak burutzea.

Teknika eta ezagutza teknologikoez ondoko esparruok barne hartzen dituzte:

- Animazio-zerbitzua egitea: programak diseinatzea, jardueren plangintza, programazioa eta aurrekontua, giza baliabideak eta materialak antolatzea, talde-animazioa eta -dinamika, adierazpen-eta antzezen-teknikak eta zerbitzuen kalitate-kontrola.
- Marketin eraginkorreko teknikak.
- Bezeroarenganako arreta: komunikazio-teknikak eta gizarte-abileziak.
- Hizkuntzak.

Jendearekin etengabe harremanetan egon beharko duenez, komunikazio-prozesuak bideratzen eta giza harremanak ondo menperatzen jakin beharko du.

- Lanbideak, eredu- eta lanposturik garrantzitsuenak

Adibide gisa eta, bereziki, lanbide-orientaziorako xedearekin, jarraian, tituluaren perfilean definitzen den lanbide-gaitasuna eskuratuz gero bete ahal izango diren lanbide edo lanpostuen multzoa adierazten da:

- Hoteleko animatzaile.
- Gau-emanaldien eta ikuskizunen animatzaile.
- Aire zabaleko jardueren animatzaile.
- Animazio-departamentuko buru.

Deskribatutako lanbide-irudiak, arestian zerrendatutako lanpostu batean lan-munduratzean, hainbat espezializazio lor ditzake eta, horretarako, lanpostu horretan trebatzeko eta moldatzeko aldi bat beharko du. Irudi honen espezializazioa, jardungo dueneko talde-motaren eta lan egin ohi dueneko establezimenduaren arabera izango da.

Gainera, tituludun honek jarraian aipatzen diren lanpostuetan lor dezake lana. Lanpostu horietarako lan-esperientzia eta iraupen laburreko prestakuntza osagarria beharko du:

- Informatzaile turistikoa.
- Sustatzaile turistikoa.
- "Transfegile".
- Publizitate eta sustapeneko laguntzaile.

Deskribatutako lanbide-irudiak, arestian zerrendatutako lanpostu batean lan-munduratzean, hainbat espezializazio lor ditzake eta, horretarako, lanpostu horretan trebatzeko eta moldatzeko aldi bat beharko du. Irudi honen espezializazioa, jardungo dueneko talde-motaren eta lan egin ohi dueneko establezimenduaren arabera izango da.

Gainera, tituludun honek jarraian aipatzen diren lanpostuetan lor dezake lana. Lanpostu horietarako lan-esperientzia eta iraupen laburreko prestakuntza osagarria beharko du:

- Informatzaile turistikoa.
- Sustatzaile turistikoa.
- “Transfegile”.
- Publizitate eta sustapeneko laguntzaile.

### 3. Irakaskuntzak

#### 3.1. Heziketa-zikloaren helburu orokorrak

- I. Ostatu turistikoen formula eta tipologia desberdinak baloratzea, antolamenduaren barruan animazioak betetzen duen zeregina kontuan hartuta.
- II. Animazio turistikoko departamentu edo sail baten zerbitzuak planifikatu, antolatu eta kontrolatzeko prozedurak aztertu, antolatu eta aplikatzea.
- III. Informazioa zuzen eman eta jasotzeko eta egoera gatazkatsuen konpontzeko komunikazio-estrategiak menperatzea, bai lan-ingurune harremanen esparruan bai eta bezeroekiko harremanetan ere, eta atzerriko gutxienez bi hizkuntzatan zuzen hitz egitea.
- IV. Giza taldeen ezaugarriak eta jokabideak ebaluatzea eta haien interesak, ezaugarriak eta motibazioak baloratzea, batez ere turista gisa, integrazio-estrategiak ezartzeko eta talde-dinamikako teknikak aplikatzeko asmoz, aisialdiaz gozatzea ziurtatzearen.
- V. Animazioko planak, programak eta jarduerak zehaztea, aldagai ekonomikoak, motibaziokoak eta talde desberdinetara egokitzekoak bateratuz.
- VI. Inguruko baliabide naturalen eta kulturalen potentzialtasuna ebaluatzea eta eskaintzak lantzeko eta jarduerak egiteko ematen dituzten aukerak baloratzea.
- VII. Kirol- eta jolas-jarduerak aisiako eta gozameneko baliabideetat ebaluatzea eta turismoaren esparruan adierazgarrienak egoera desberdinetara egokitzea, hala nola, adinera, egoera fisikora, hobespenetara, inguruaren egoerara eta abar.
- VIII. Dokumentazio teknikoak aztertu, egokitu eta, hala badagokio, sortzea.
- IX. Bere lanbidearekin zerikusia duten informazio-iturriak aukeratu eta kritikoki baloratzea, bere kasa ikasteko gaitasuna garatzeko eta lanbide-gaitasunak sektorearen aldaketa teknologikoetarantz eta antolamendukoetarantz bilakatzeko eta horietara egokitzeko aukera izan dezan.
- X. Ekimena, erantzukizunaren zentzua, nortasuna eta lanbide-heldutasuna garatzea, lanaren kalitatea areagotzeko eta lanbidean hobetzearen motibazioa pizteko aukera izan dezan.
- XI. Aisialdiaren garrantzia baloratzea.
- XII. Adierazpen- eta antzeppen-teknikak aplikatzea.
- XIII. Jarduera turistikoa arautzen duen legezko esparrua, ekonomikoa eta antolamendukoa ulertzea eta lan-harremanen ondoriozko eskubideak eta betebeharrak identifikatzea.
- XIV. Beharrezko ezagutza teknikoak eta egiten jakitekoak autonomiaz erabiltzea eta ezarritako prozeduretan hobekuntzak eta laneko kontingentziarako konponbideak proposatzea.
- XV. Esparru edo sektore honetan garatu beharreko prozesuetarako konponbideak ezartzen lagundu eta parte hartzea, ingurumenarekiko eragin kaltegarriak ahalik eta gehien murriztuko diren moduan. Laneko jardunaren bidez prozesuen kalitatea etengabe hobetzen parte hartzea.

#### 3.2. Lanbide-moduluak

##### 1. lanbide-modulua. ASTIALDIKO ETA GIZARTE-HEZIKETAKO ENPRESA TXIKIEN ANTOLAMENDUA ETA KUDEAKETA

###### a) Amaierako gaitasunak

Lanbide-modulu hau amaitzean ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

1. Enpresa txikiei, organismoiei eta kolektiboiei buruzko sektoreko azterlanak egiteko garaian, beharrezko informazioa lortu eta baloratzeko prozedura eta teknika egokiak aplikatzea.

2. Indarrean dagoen legeriaren arabera, sektoreko enpresa txiki bat eratu eta martxan jartzeko prozedurak aztertzea.
3. Sektoreko jardueretako enpresa txiki batean barne hartutako zerbitzuak egiteko baliabideen antolamendua eta kudeaketa aztertzea.
4. Enpresa txiki baten kudeaketari buruzko oinarritzko administrazio-prozedurak aztertzea eta sortutako dokumentazioa interpretatzea eta/edo lantzea, indarrean dagoen legeria aplikatuta.
5. Jarduera turistikotako enpresa batean gara daitezkeen sustapen-ekintzak aztertzea.

## b) Ebaluazio-irizpideak

1. Enpresa txikiei, organismoiei eta kolektiboiei buruzko sektoreko azterlanak egiteko garaian beharrezko informazioa lortu eta baloratzeko prozedura eta teknika egokiak aplikatzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Gizarte- eta merkatu-ikerketarako gehien erabiltzen diren tekniken ezaugarri eta aplikazio nagusiak deskribatzea.
- Lehen mailako, bigarren mailako, zuzeneko eta zeharkako iturriaren kontzeptua azaltzea eta iturri bakoitzetik informazioa ateratzeko prozedurak zehaztea.
- Astialdiko eta gizarte-heziketako enpresa txiki baten ezarpenak eskatzen dituen parametroak zehaztea.
- Ekintzen eskaintza orokor bat zehazteko beharrezkoa den informazioa eta hura lantzeko irizpideak eta prozedurak adieraztea.
- Jarduerak garatzean egindako zerbitzuaren kalitatea baloratzea ahalbidetuko duten parametroak identifikatzea.
- Egindako zerbitzuaren kalitatea ebaluatu ahal izateko informazioa biltzeko teknikak deskribatzea.
- Ingurunearen egoerari buruzko informazioa ematen duten parametroei buruzko behar bezala ezaugarritutako datu batzuetatik abiatuta:
  - Ingurunearen egoerari buruzko informazioa emango duten datu estatistikoak aplikatzea.
  - Lortutako emaitzak estatistikoki interpretatu eta aztertzea eta ondorioak ateratzea.
  - Ateratako ondorioetatik abiatuta, ezar daitezkeen jarduerak eta zerbitzuak zehaztea.
- Behar bezala ezaugarritutako suposizio batetik abiatuta, sektoreko enpresa txiki baten ezarpenari buruzko azterketa bat egitea beharrezkoa izanik:
  - Azterketan eragina duten aldagaiak identifikatzea.
  - Informazio-iturriak eta hura lortzeko prozedurak identifikatu eta aukeratzea.
  - Informazio-beharretara egokituko den datuak biltzeko formatua lantzea.
  - Bildutako informazioa interpretatzea, beharrezko teknikak aplikatuta.
  - Ezarpenetako beharrezkotzat jotzen diren baliabideak identifikatzea.
  - Enpresa sortzeko bideragarritasuna ebaluatzea.
- Helburuak, populazioa, baliabideak eta ereduak zenbait jarduera (baldintzak, helburuak eta abar barne direla) behar bezala identifikatu dituen suposizio batetik abiatuta, jarduera eta zerbitzuen eskaintza baten aukeraketa justifikatzea.
- Populazio-segmentu jakin baterako zehaztutako informazio-beharrak agertzen dituen suposizio batetik abiatuta:
  - Segmentuaren lagin adierazgarria definitzea.
  - Horretarako informazio egokiena lortzeko aukeratutako teknika justifikatzea.
  - Eskatutako datuak biltzeko galdera-sorta bat lantzea.
  - Informazioa lortzea, horretarako aukeratutako teknikak aplikatuta.
  - Bildutako informazioa interpretatzeko trataera estatistiko egokiena aukeratu eta aplikatzea.
  - Azterlanaren ondoren ateratako ondorioak bilduko dituen txostena lantzea.
  - Lana lortu eta aurkezteko informatika-aplikazio egokiak erabiltzea, horretarako emandako jarraibideak betez.
- Aldaketak edo alternatibak emateko ekimena eta izaera kritikoa izatea.
- Lanak egitean autonomia izatea.

2. Indarrean dagoen legeriaren arabera sektoreko enpresa txiki bat eratu eta martxan jartzeko prozedurak aztertzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Enpresaren forma juridikoak bereiztea eta kasu bakoitzean hura eratzeko erantzukizun-maila eta gutxieneko legezko baldintzak identifikatzea.
- Indarrean dagoen legeriak enpresa bat eratu eta ezartzeko eskatzen dituen izapideak deskribatzea, beharrezko dokumentuak, horiek bideratzeko organismoak eta ezarritako forma eta epea zehaztuta.
- Sektoreko enpresa txiki baten jarduera arautzen duen berariazko legeria interpretatzea.
- Sektoreko enpresa txiki bat eratu eta martxan jartzeko behar bezala ezaugarritutako suposizio praktikoa batetik abiatuta:
  - Zehaztutako suposizioan aplikatu beharreko indarreko legeria identifikatu eta interpretatzea.
  - Eskatutako dokumentazioa bideratzen duten organismo ofizialak identifikatzea eta hura lortzeko kudeaketak egitea.
  - Eskatutako dokumentazioa behar bezala betetzea eta hura bideratzeko prozesua deskribatzea.
- Dagokion mailan, egoera edo arazo jakin batzuen aurrean erabaki koherenteak hartzeko jarrera azaltzea.
- Sektoreko ereduak enpresetan aplikatu daitezkeen joera eta lan-modu berritzaile edo desberdinak behatzeko interesa azaltzea.

3. Sektoreko jardueretako enpresa txiki batean barne hartutako zerbitzuak egiteko baliabideen antolamendua eta kudeaketa aztertzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Sektoreko ereduak enpresa baten funtzio-arloak eta horien arteko erlazio funtzionala deskribatzea.
- Enpresa-antolamendua zuzentzen duten printzipioak eta haren hierarkizazioa deskribatzea: errentagarritasuna, produktibitatea, eraginkortasuna, kalitatea, segurtasuna, bideragarritasuna.
- Antolamendua eraginkor egiten duten elementuak eta faktoreak adieraztea.
- Sektoreko enpresa baten egitura azaltzea eta bere ereduak sail baten funtzioak deskribatzea.
- Sektoreko jardueren sail edo eremu batean lana antolatzeko kontuan izan beharreko funtsezko aldagaiak identifikatzea.
- Alde batetik inbertsioaren, gastuaren eta ordainketaren eta bestetik sarreraren eta kobrantzaren arteko desberdintasunak zehaztea.
- “Aktibo”, “pasibo galdagarri” eta “garbi” kontzeptuak definitzea eta horien arteko funtsezko erlazioa zehaztea.
- Sektoreko ereduak enpresa txiki batek ibilgetuan inbertitzeko dituen funtsezko beharrak identifikatzea.
- Aurrekontu bat lantzeko prozedura deskribatzea.
- Sektoreko enpresa baten ondare-egoera baloratzeko gehien erabiltzen diren ekonomia- eta finantzaratioek ematen duten informazioa interpretatzea.
- Lan-kontratuak mota desberdinen oinarriko ezaugarriak deskribatzea eta horien baldintzak, iraupena, lanaldia, formalizazio-izapideak eta, hala badagokio, dirulaguntzak eta salbuespenak identifikatzea.
- Sektoreko hitzarmen kolektiboak arautzen duten lan-aldagaiak zehaztea.
- Enpresari autonomoaren lan-betebeharrak zehaztea eta eskatutako dokumentazioa eta izapideak, prozedurak eta ezarritako epeak identifikatzea.
- Sektoreko finantzaketa-iturriak eta -moduak deskribatzea.
- Kreditu-entitateek eskaintzen dituzten finantzaketa-alternatibei buruz ematen duten informazioa interpretatzea eta alternatiba bakoitzak dituen abantailak eta eragozpenak ondorioztatzea.
- Bezeroekin eta hornitzaileekin negoziatzeko eta bezeroari erantzuteko tekniken oinarriko printzipioak azaltzea.
- Merkatuan dauden jardueren, zerbitzuen eta produktuen eskaintzetatik abiatuta, horietatik onuragarriena zein den zehaztea, ondoko parametroak kontuan izanda:
  - Merkatuko prezioak.
  - Entregatzeko epeak.
  - Kalitateak.
  - Deskontuak eta ordainketa-baldintzak.
  - Bermea.
  - Saldu ondoko arreta.
- Behar bezala ezaugarritutako jardueren programa batetik abiatuta:
  - Programarako antolamendu-egiturarik egokiena deskribatzea.

- Programa burutzeko giza baliabiderik egokienak eta kontratazio-modua identifikatzea.
- Beharrezko baliabide materialak ondorioztatzea.
- Merkatuari buruzko informazioa biltzea eta dagokion programarako gutxi gorabeherako aurrekontua egitea.
- Dagokion programarako finantzaketa-motarik egokiena identifikatzea.
- Betiere, garatzen duen lanaren erantzukizuna hartzea.

4. Enpresa txiki baten kudeaketari buruzko oinarritzko administrazio-prozedurak aztertzean eta sortutako dokumentazioa interpretatzean eta/edo lantzean (indarrean dagoen legeria aplikatuta), ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Enpresaren trafikoan eragina duten zeharkako zergen eta etekinen gaineko zuzeneko zergen ezaugarriak deskribatzea.
- Banakako enpresei eta sozietateei dagokien zerga-egutegia zehaztea.
- BEZaren zerga-erregimenak eta horiek zein subjektu pasibori aplikatzen zaizkion azaltzea.
- Indarrean dagoen araudiaren arabera, enpresak nahitaez bete behar dituen liburuak eta dokumentuak adieraztea.
- Sektoreko enpresa txiki baten jardueran sortzen diren oinarritzko merkataritza-dokumentuak identifikatu eta ezaugarritzea eta horien funtzioa eta bete behar dituzten legeko baldintzak bereiztea.
- Ondasun higiezinak salerosi eta alokatzeko kontratuen oinarritzko lege-baldintzak identifikatzea.
- Nomina batek barne hartzen duen informazioa eta gizarte-segurantzarako kotizazio-dokumentuak identifikatu eta interpretatzea.
- Ekonomia- eta finantza-informazioaren kontabilitate-prozesuak dituen faseak deskribatzea.
- Kontu korranteak eta aurrezkitxoak likidatzean, merkataritza-efektuen kobrantza eta deskontua kudeatzean eta bankuko maileguak eta kreditu-lineak eman eta amortizatzean jarraitzen den prozedura azaltzea.
- Hornitzaileen eskaintzak aukeratzean kontuan hartu behar diren eta negoziatu daitezkeen parametro garrantzitsuak deskribatzea.
- Enpresaren jarduerak duen errentagarritasunari buruzko informazioa lortzeko bide ematen duten ratio nagusiak azaltzea.
- Egoera-balantzeak eta emaitzen kontuak ematen duten funtsezko informazioa interpretatu eta deskribatzea.
- Behar bezala ezaugarritutako salerosketa-eragiketetatik abiatuta eta dokumentu-eredu eta informatika-programa egokiak erabilita, ondoko dokumentu hauek egokiro lantzea:
  - Eskaera-oharrak.
  - Albaranak eta fakturak.
  - Kanbio-letrak.
  - Ordainagiriak.
  - Txekuek.
- Jarduerari lotutako dokumentazioaren izapideak eta kudeaketa kudeatu eta ikuskatzea.
- Aldaketak edo alternatibak emateko ekimena eta izaera kritikoa izatea.
- Lanak egitean autonomia izatea.

5. Jarduera turistikoetako enpresa batean gara daitezkeen sustapen-ekintzak aztertzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Sektorean erabili ohi diren sustapen-tresnak edo -baliabideak identifikatu eta deskribatzea.
- Sustapen-baliabideak helburuekin eta xede den publikoarekin erlazionatzea.
- Sustapen-tresna gisa erabil daitezkeen publizitate-baliabideak, -euskarriak eta -moduak deskribatzea.
- Publizitate-jarduera diseinatzeko aplikatzen diren teknika psikologiko nagusiak deskribatzea.
- Emaitza egokia lortzeko, sustapen-kanpaina batean kontrolatu beharreko aldagaiak zehaztea.
- Publizitatearen eraginkortasuna neurtzeko metodo nagusiak aztertzea eta horien abantailak eta eragozpenak azaltzea.
- Enpresa jakin baten jarduera-programa orokorrari buruzko behar bezala ezaugarritutako suposizio praktiko batean:
  - Zehaztutako suposizioari egokitutako sustapen-baliabideren bat aztertzea.

- Sustapen-baliabide egokia aukeratzea eta dagokion enpresaren xede den publikoarengan horrek sor ditzakeen eragin psikologikoak azaltzea.
- Sustapen-mezuaren edukia eta forma zehaztea.
- Betiere, garatzen duen lanaren erantzukizuna hartzea.
- Aldaketak edo alternatibak emateko ekimena eta izaera kritikoa izatea.

### c) Edukiak

## I. multzoa: ASTIALDIKO ETA GIZARTE-HEZIKETAKO ENPRESA TXIKI BATEN ERAKETA ETA ANTOLAMENDUA

### Prozedurazkoak:

- Gizarte- eta merkatu-ikerketan informazioa lortzeko teknika edo prozedura egokiak identifikatzea.
- Estatistika gizarte- eta merkatu-ikerketan aplikatzea.
- Bidezko teknikak eta prozedurak aplikatuta, sektoreari eta merkatuari buruzko informazioa lortu eta baloratzea.
- Bidezko teknikak eta prozedurak aplikatuta, sektorearen egungo eskaintza eta etorkizuneko joera osatzen duten jarduera, zerbitzu eta produktuei buruzko informazioa lortu eta baloratzea.
- Ereduzko enpresa baten eta bere ingurunearen egitura funtzionala eta antolamenduzkoa aztertzea.
- Sektorearen erregulazioan oinarritzekoak diren legeria-alderdiak bereizi eta aztertzea. Lege-hutsuneak baloratzea.
- Sektoreko enpresa bat eratu eta martxan jartzeko beharrezkoak diren prozedurak aztertzea.
- Hainbat helburu eta zirkunstantzia kontuan hartuta, sektoreko enpresa batentzako forma juridiko egokia finkatzea.
- Sektoreko enpresak sortzeko beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide materialak eta ekonomikoak zehaztea.
- Sektoreko enpresa bat eratu eta martxan jartzeko beharrezkoak diren organismoak eta entitateak eta enpresaren kokapena identifikatzea.
- Sektorean aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboak aztertzea.
- Kontratuak, nominak eta gizarte-aseguruak aztertu eta bereiztea.
- Giza baliabideen arloko beharrak finkatzea. Ezaugarriak identifikatzea. Kostua kuantifikatzea.
- Enpresa-jardueran eragina duten zerga-betebeharrak identifikatzea.
- Jarduerari eta sektoreari lotutako laguntza eta kapital-dirulaguntza ofizialak baloratzea.
- Enpresaren merkataritza-estrategia finkatzea:
  - Aurreikus daitekeen merkatu-kuota eta fakturazio-bolumena baloratzea.
  - Xede diren bezeroen ezaugarrien estimazioa egitea.
  - Enpresa-politikak (produktu edo zerbitzuari, prezioei, komunikazioari eta abarri buruzkoak) zehaztea.
- Ekonomia- eta finantza-plan bat zehaztea.
- Enpresa baten antolamendua simulatzea.

### Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Merkatuen ikerketa:
  - Ikerketaren helburuak.
  - Ikerketaren plangintza.
  - Informazioa biltzeko teknikak:
    - \* Behaketa.
    - \* Inkesta.
    - \* Elkarrizketa.
  - Ikerketan aplikatzeko soziologia.
  - Ikerketan aplikatzeko psikologia.
  - Merkataritza-ikerketan aplikatzeko estatistika.
- Enpresa:
  - Kontzeptua, helburuak eta funtzioak.
  - Enpresa-motak.
  - Enpresen forma juridikoak.

- Enpresa baten eredu organigrama.
- Sektorean aplikatzeko araudia.
- Enpresa legeztatze izapide ofizialak –aurkeztu beharreko dokumentazioa, zein organismo eta lekura jo behar den, baloratu beharreko kontsiderazioak– eta dokumentazioa:
  - Enpresari indibiduala edo ondasun-erkidegoa.
    - \* Aldez aurreko kontsulta dagokion lurralde-ordezkaritzarekin.
    - \* Aldez aurreko hirigintza-kontsulta.
    - \* Ondare Eskualdaketen gaineko Zergaren likidazioa.
    - \* Inskripzioa Industria Jabetzaren Erregistroan.
    - \* Inskripzioa Higiezinaren Jabetza Erregistroan (jabetzako lokalen kasuan).
    - \* Udal-baimenak: obra-lizentziaren eskaera, jarduera gogaikarriei buruzko espedientea, bestelako baimenak... irekiera-lizentziaren eskaera.
    - \* Ondasun-erkidegoa sortzeko kontratu zibila sinatzea.
    - \* Identifikazio Fiskaleko Zenbakiaren eskaera.
    - \* Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta hartzea.
    - \* BEZ zergan alta hartzea eta BEZaren eta sarrera eta gastuen liburuak eskuratzea.
    - \* Matrikula eta Bisita Liburuak eskuratu eta legeztatzea.
    - \* Lantokiaren irekierari buruzko komunikazioa.
    - \* Gizarte Segurantzako autonomoen erregimen berezian alta hartzea.
  - Merkataritza-sozietatea:
    - \* Aldez aurreko kontsulta Eusko Jaurlaritzako dagokion lurralde-ordezkaritzarekin.
    - \* Aldez aurreko hirigintza-kontsulta.
    - \* Izen bereko beste sozietaterik ez dagoela ziurtatzen duen agiriaren eskaera.
    - \* Eraketari eta Estatutuei buruzko eskritura.
    - \* Ondare Eskualdaketa eta Agiri bidezko Egintza Juridikoen gaineko Zergaren likidazioa.
    - \* Inskripzioa Merkataritza Erregistroan.
    - \* Inskripzioa Industria Jabetzaren Erregistroan (jarduera propioa, jardueran aplikatzeko moduko produktu baten eredia eta abar erregistratu behar izanez gero soilik).
    - \* Lokalaren inskripzioa Higiezinaren Jabetza Erregistroan (jabetzako lokalen kasuan).
    - \* Udal-baimenak: obra-lizentziaren eskaera, jarduera gogaikarriei buruzko espedientea, iragarki, errotulu, erakusleihu eta abarretarako bestelako baimenak, irekiera-lizentziaren eskaera.
    - \* Identifikazio Fiskaleko Zenbakiaren eskaera.
    - \* Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta hartzea.
    - \* BEZ zergan alta hartzea eta BEZaren eta sarrera eta gastuen liburuak eskuratzea.
    - \* Enpresaren inskripzioa Gizarte Segurantzaren eta patronal-zenbakiaren lorpena.
    - \* Enpresa Gizarte Segurantzako Lan Istripuetarako eta Gaixotasun Profesionalarako Erregimenean edo mutualitate patronal batean alta hartzea.
    - \* Kontratututako langileak Gizarte Segurantzaren afiliatzea.
    - \* Matrikula eta Bisita Liburuak eskuratu eta legeztatzea.
    - \* Lantokiaren irekierari buruzko komunikazioa.
    - \* Merkataritza-liburuak eskuratu eta legeztatzea.
    - \* Tokiko hainbat zerga eta tasatan alta hartzea.
    - \* Berariazko beste batzuk.
  - Sozietate kooperatiboen berezitasunak.
- Enpresa sortzeko giza baliabideak eta baliabide materialak eta ekonomikoak:
  - Lokalen eta makineriaren errentamendua, eskualdaketa edo erosketak.
  - Obra-lizentzia.
  - Jarduera-lizentzia.
- Laneko harremanak:
  - Lan-kontratuak:
    - \* Kontzeptua.
    - \* Motak.

- Gizarte Segurantzako afiliazioa:
  - \* Alta.
  - \* Baja.
- Nominak eta gizarte-aseguruak:
  - \* Soldaten ordainagiria.
  - \* TC1.
  - \* TC2.
  - \* TC2/1.

#### Jarrerazkoak:

- Zorroztasuna datuak eta informazioa tratatu eta interpretatzean.
- Objektibotasuna antolamendu-egitura zehazteko, informazioa lortzeko eta forma juridiko egokia aukeratzeko garaian dauden aukerak zehaztean.
- Ekimena eta izaera kritikoa ideiak edo alternatibak ematean.
- Autonomia erabakiak betetzean.
- Erabaki koherenteak hartzeko jarrera, hala eskatzen duten egoeren eta arazoen aurrean.

## II. multzoa: ASTIALDIKO ETA GIZARTE-HEZIKETAKO ENPRESA TXIKI BATEN KUDEAKETA

#### Prozedurazkoak:

- Sektoreko enpresen jarduera kudeatzeko teknikak identifikatzea.
- Administrazio-kudeaketa egokia ahalbidetuko duten administrazio-dokumentazioa, merkataritza-liburuak, banku-zerbitzuak eta artxibatze-teknikak identifikatzea.
- Enpresaren zerga-betebeharren (BEZ, PFEZ) likidazioak kalkulatzeko.
- Enpresa txiki baten jarduerari lotutako finantzaketa-iturriak, dirulaguntzak eta bestelako laguntzak aztertzea.
- Enpresaren ekonomia- eta finantza-ratioak informatikoki kalkulatzeko.
- Salerosketan negoziatzeko teknikak identifikatzea.
- Bezeroaren psikologia aztertzea, hari arreta eskaintzeko teknikak finkatzeko.
- Eskura dauden baliabideetan oinarrituta, sustapen-tresnak konbinatzea.
- Erabilitako sustapen-ekintzaren eraginkortasuna aztertzea.
- Gizarte- eta kultur animazioko jardueren eskaintza bat lantzea.
- Egindako zerbitzuaren kalitatea neurtzea.
- Beharrezko informatika-programak erabilia, enpresa baten kudeaketa simulatzea.

#### Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Administrazio-kudeaketa:
  - Merkataritza-dokumentuak:
    - \* Merkataritza-gutunak.
    - \* Eskaera.
    - \* Emate-agiria.
    - \* Faktura.
    - \* Kanbio-letra.
    - \* Txekeak.
    - \* Jardueraren beste berariazko batzuk.
  - Merkataritza-liburuak:
    - \* Egunkaria.
    - \* Nagusia.
    - \* Inbentarioak eta balantzeak.
    - \* Igorritako eta jasotako fakturak.
    - \* Kutxako osagarria.
    - \* Bankuetako osagarria.
    - \* Korrespondentziaren sarrera eta irteera.
  - Enpresa txikirako banku-zerbitzua:
    - \* Kontu korronea.

- \* Aurrezki-kontua.
- \* Letra-deskontua.
- \* Ondasun higiezinak alokatu eta salerosteko kontratuak.
- Artxiboa.
- Enpresaren finantza-kudeaketa:
  - Finantzaketa-iturriak:
    - \* Propioa.
    - \* Kanpokoak:
      - ◊ Dirulaguntzak.
      - ◊ Maileguak:
        - ◆ Baloratu beharreko baldintzak: interes-tasa, komisioak, gastuak.
        - ◆ Amortizazioak: amortizazio konstantea eta urteko konstantea.
- Merkataritza-kudeaketa:
  - Kontsumitzailearen psikologia.
  - Negoziazio-prozesuaren analisisa.
  - Negoziazioaren oinarriko osagaiak:
    - \* Elkarrizketa.
    - \* Limurtasuna.
    - \* Xedea.
    - \* Akordioa.
  - Negoziazio-teknikak:
    - \* Hornitzailearen/bezeroaren tipologia.
    - \* Produktuen tipologia.
    - \* Giroa.
  - Negoziazioa finkatzea:
    - \* Akordio-puntuak.
    - \* Itxieraren unea.
    - \* Arazoak itxieran.
  - Bezeroarentzako arreta-teknikak.
  - Sustapena:
    - \* Definizioa, funtzioak eta publizitate-motak.
    - \* Sustapen-ekintzaren teknika psikologikoak.
      - ◊ Kontsumitzailearentzako pizgarriak.
      - ◊ Sustapen-mezuak.
- Sektorean aplikatutako kalitatea.
  - Oinarriko printzipioak.
  - Teknikak eta aldagaiak.
- Zerga-betebeharrak:
  - BEZ.
  - PFEZ.
  - Sozietateen gaineko Zerga.
- Informatika:
  - Testu-prozesadorea.
  - Kalkulu-orria.
  - Merkataritza- eta kontabilitate-aplikazioa.

#### Jarrerazkoak:

- Zuhurtasuna jardun-planak lantzean, intereseko kolektibora hurbiltzea ahaztu gabe.
- Ordena eta metodoa zereginak esleitu eta garatzean.
- Egiten duen lanarekiko erantzukizuna.
- Enpresa-esparruan indarrean dagoen araudia errespetatzea.

## 2. lanbide-modulua. ANIMAZIORAKO KOMUNIKAZIO-TEKNIKAK

### a) Amaierako gaitasunak

Lanbide-modulu hau amaitzean ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

1. Festen, ikuskizunen eta girotze-lehiaketen motak aztertzea eta kontsumitzaileen/erabiltzaileen motekin eta jarduera horietarako erabiltzen diren instalazioekin eta espazioekin erlazionatzea.
2. Gau-emanaldietako eta ikuskizunetako jarduerak diseinatzea eta horiek zuzenduta dauden taldearekin eta eskura dauden baliabideekin erlazionatzea.
3. Gau-emanaldietako eta ikuskizunetako jarduerak antolatu, muntatu eta entseatzeko beharrezko lanak egitea.
4. Jarduera-tipologia desberdinekin bat etorriko diren karakterizazioak egitea.
5. Adierazpen- eta antzezen-teknikak aplikatzea eta horiek festetan edo ikuskizunetan barne hartzea baloratzea.
6. Animazio-jarduerak ezagutzera emateko egokiak izango diren kartelak landu eta informazio-panelak konposatzea.

#### b) Ebaluazio-irizpideak

1. Festen, ikuskizunen eta girotze-lehiaketen motak aztertzean eta kontsumitzaileen/erabiltzaileen motekin eta jarduera horietarako erabiltzen diren instalazioekin eta espazioekin erlazionatzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Festa, ikuskizun eta lehiaketa ezaugarrienetarako, ondokoa aztertzea:
  - Helburuak.
  - Oinarrizko elementuak.
  - Bezeroen partaidetzaren bizitasun-mailak.
  - Animatzailearen zereginak eta erantzukizuna.
  - Oinarrizko behar materialak.
  - Pertsonal-beharrak.
  - Adierazpen- eta antzezen-teknikak erabiltzea.
  - Karakterizazioaren elementuak.
  - Girotzearen eta argiztapenaren ezaugarriak.
  - Musikak jarduerarekin duen erlazioa.
- Animazio-jarduerari dagokienez kontsumitzaileen/erabiltzaileen hobespenak deskribatzea, horien tipologia kontuan izanda.
- Gau-emanaldietako, ikuskizunetako eta lehiaketetako jarduerak aztertzea.

2. Gau-emanaldietako eta ikuskizunetako jarduerak diseinatzean eta horiek zuzenduta dauden taldearekin eta eskura dauden baliabideekin erlazionatzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Baldintza turistiko batzuetatik eta talde jakin batetik abiatuta:
  - Jarduera zuzenduta dagoen taldearen ezaugarri orokorrak erabakitzea.
  - Jarduera-mota aukeratzea.
  - Helburuak zehaztea.
  - Eskura dauden baliabideekin bat etorriko den aurrekontua zehaztea.
  - Jarduera-plan bat garatzeko irizpide metodologikoak zehaztea.
  - Denborak banatzeko irizpideak ezartzea.
  - Beharrezko materialak eta ekipoak zehaztea.
  - Aplikatu daitezkeen arau didaktikoak ezartzea.
  - Erabili beharrekotako animazio-teknika zehaztea eta zein talderi zuzenduta dagoen eta aukeratutako jardueraren arabera egindako egokitzapenak azaltzea.
  - Jardueraren ebaluaziorako eta “atzerelikadurako” neurriak zehaztea.

3. Gau-emanaldietako eta ikuskizunetako jarduerak antolatu, muntatu eta entseatzeko beharrezko lanak egitean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Jarduera bakoitzean:
  - Beharrezko instalazioak, ekipoak eta materialak adieraztea.
  - Jarduerekin lotutako dekorazio-motiboak aukeratzea.
  - Dekoratuaren kokapen berezirako jarraibideak zehaztea.
  - Dekorazioak eta girotzeak muntatzeko erak eta urratsak ezartzea.
  - Jarduerak prestatzeko gidoi sekuentziatu bat lantzea, ondokoa barne hartuta:
    - \* Partaideen kopurua.
    - \* Entseguaren mota eta denbora.
    - \* Entseatzeko lekuak.
    - \* Jarduera jakitera ematearekin duen lotura.

4. Jarduera-tipologia desberdinekin bat etorriko diren karakterizazioak egitean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Pertsonaien edo funtzioen araberrako makillaje-ereduak aukeratzea.
- Makillaje bakoitzaren kolore-aldaketak edo nahasketak ezartzea.
- Pertsonaren larruzalaren ezaugarrien eta erabili beharreko materialen arteko lotura egokia ziurtatzea.
- Festa edo ikuskizun batekin bat etorriko diren jantziak aukeratzea.
- Formak eta materialak kontuan izanda, jantziak egiteko arauak zehaztea.
- Taldeko harremanak antzematea eta makillajea eta jantziak guztiz bat etortzeko beharrezko aldaketak egitea.

5. Adierazpen- eta antzezen-technikak aplikatzean eta horiek festetan edo ikuskizunetan barne hartzea baloratzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Jarduera jakin batetik abiatuta:
  - Dagozkion funtzioak, pertsonaiak eta jarduerak zehaztea.
  - Partaide bakoitzari jarduera bat esleitzea, beraren nahiak, ezaugarriak, egokitzeapena eta taldea dinamizatzeko helburuak kontuan izanda.
  - Funtzio edo pertsonaia bakoitzaren mugimenduak eta adierazkortasun-maila aukeratzea.
  - Pertsonaiei, funtzioei eta partaideei egokitutako ahozko adierazpeneko beharrak ebaztea, argitasuna, erritmoa, tinbrea, tonua eta oihartzuna baloratuta.
  - Musika aukeratzea, multzoarekiko haren egokitasuna eta aukera koreografikoak baloratuta.
  - Partaideen kokapena eta mugikortasuna baloratu eta zehaztea, eskura dagoen tokiaren eta partaideen aukeren arabera.
  - Deskribatutako elementu guztiak bilduko dituen gidodia egitea.

6. Animazio-jarduerak ezagutzera emateko egokiak izango diren kartelak landu eta informazio-panelak konposatzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Mezuen helburuak zehaztea.
- Konposizio-arauak aplikatzea eta horiek mezuei, erabilitako materialei eta eskura dagoen tokiari egokitzea.
- Marrazkiaren barne-logikaren eta aurreikusitako helburuen arabera kolorearen erabilera justifikatzea.
- Konposiziara eta helburuetara egokitutako letra-motak aukeratzea.

c) Edukiak

I. multzoa: GAU-EMANALDIK, IKUSKIZUNAK ETA GERTAKARIAK  
ANTOLATZEA

### Prozedurazkoak:

- Festa, ikuskizun eta lehiaketa ezaugarrienak aztertzea.
- Animazio-jardueri dagokienez, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hobespenak aztertzea, horien tipologia kontuan izanda.
- Taldearen arabeko jarduera-mota aukeratzea.
- Eskura dauden baliabideekin bat etorriko den aurrekontua zehaztea.
- Lortu beharreko helburuak zehaztea.
- Irizpide metodologikoak zehaztea.
- Denborak banatzeko irizpideak ezartzea.
- Beharrezko materialak eta ekipoak zehaztea.
- Aplikatu daitezkeen arau didaktikoak ezartzea.
- Erabili beharreko animazio-teknika zehaztea.
- Jardueraren ebaluaziorako eta “atzeraelikadurako” neurriak zehaztea.

### Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Gau-emanaldien, ikuskizunen eta gertakarien sailkapena:
  - Tipologia.
  - Zein kolektibori zuzenduta dauden.
- Protokolo- eta irudi-teknikak.
- Protokolo-ekintzak.
- Animazio-teknikak.
- Arauak eta erregelamendua.
- Gertakariak ebaluatzeko teknikak.
- Pertsonala eta zereginak.
- Dokumentazioa eta publizitatea.

### Jarrerazkoak:

- Antolatutako gertakarietan partaidetza aktiboa izatea.
- Gau-emanaldia, lehiaketa edo ikuskizuna zuzenduta dagoeneko kolektiboarekiko interesa.
- Arauak errespetatzea eta talde-lanean sartzeta.
- Animazio-jarduera berriak bilatzen laguntzea.
- Kultur aniztasuna errespetatzea.
- Lanean errespetu handia eta adeitasuna erakustea.

## II. multzoa: ADIERAZPEN- ETA ANTZEZPEN-TEKNIKAK

### Prozedurazkoak:

- Jarduera bat aukeratu eta funtzioak, pertsonaiak eta jarduerak zehaztea.
- Partaide bakoitzari jarduera bat esleitzea, beraren nahiak, ezaugarriak, egokitzapena eta garatzen duen jardueraren helburuak kontuan izanda.
- Pertsonaia bakoitzaren mugimenduak eta adierazkortasun-maila aukeratzea.
- Pertsonaia bakoitzari egokitutako ahozko adierazpeneko beharrak ebaztea.
- Musika aukeratzea, multzoarekiko haren egokitasuna eta aukera koreografikoak baloratuta.
- Partaideen kokapena eta mugikortasuna zehaztea.
- Erabili beharreko elementu guztiak bilduko dituen multzoko gidoia egitea.
- Pertsonaien edo funtzioen arabeko makillaje-ereduak aukeratzea.
- Makillaje bakoitzaren nahasketak baloratzea.
- Festa edo ikuskizun batekin bat etorriko diren jantziak aukeratzea.
- Formak eta materialak kontuan izanda, jantziak egiteko arauak zehaztea.
- Makillajea eta jantziak bat etortzeko beharrezko aldaketak egitea.

### Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Gorputz-adierazpeneko teknikak.
- Ahozko adierazpen-teknikak.
- Musika-adierazpeneko teknikak:
  - Musika-estiloak.

- Dantza-estiloak.
- Koreografia-aplikazioak.
- Karakterizazioko prozesuak eta teknikak:
  - Makillajea.
  - Jantziak.

#### Jarrerazkoak:

- Eszenaratzeko gustua.
- Pertsonaiari gehien egokituko zaizkion musika, jantziak eta makillajea aukeratzeko interesa.
- Arauak errespetatzea eta talde-lanean sartzeta.
- Funtzio edo pertsonaia bakoitzaren mugimenduak eta adierazkortasun-maila bilatzen laguntzea.
- Kultur aniztasuna errespetatzea.
- Lanean errespetu handia eta adeitasuna erakustea.

### III. multzoa: ESZENOGRAFIA PRESTATZEKO TEKNIKAK

#### Prozedurazkoak:

- Beharrezko instalazioak, ekipoak eta materialak erabiltzea.
- Jarduerekin lotutako dekorazio-motiboak aukeratzeta.
- Dekoratuak kokapenerako jarraibideak zehaztea.
- Dekoratuak muntatzeko erak eta urratsak ezartzeta.
- Jarduerak prestatzeko gidoi sekuentziatu bat lantzea.

#### Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Eszenografia prestatzeko teknikak:
  - Eszenaratzeta. Muntaia bat egin eta produzitzeko etapak.
  - Eskuzko produkzioko baliabideak eta teknikak.
  - Oinarrizko elektrizitatea.
  - Argiztapen, soinu eta efektu berezietako teknikak.
- Espazioak dekoratzeko teknikak:
  - Giroitze-teknikak.
  - Oinarrizko motak eta elementuen nahasketa.
  - Oinarrizko brikolajea.

#### Jarrerazkoak:

- Eszenografia prestatzeko teknikak aukeratzean zentzu praktikoa izatea.
- Festara edo ikuskizunera gehien egokituko den girotzea aukeratzeko interesa.
- Arauak errespetatzea eta talde-lanean sartzeta.
- Funtzio edo pertsonaia bakoitza eszenaratzen laguntzea.
- Argiztapena, soinua eta efektu bereziak aukeratzean zentzu artistikoa izatea.

### IV. multzoa: KARTELGINTZA

#### Prozedurazkoak:

- Mezuen helburuak zehaztea.
- Konposizio-arauak aplikatzea eta mezuei egokitzea.
- Erabilitako materialak identifikatzea.
- Eskura dagoen tokia aukeratzeta.
- Marrazkiaren eta aurreikusitako helburuen arabera kolorea erabiltzea.
- Konposiziora eta helburuetara egokitutako letra-motak erabiltzea.
- Kokapen egokiena aukeratzeta.

#### Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Kartelak konposatzeari buruzko teoria.
- Koloreari buruzko teoria.

- Kartelaren grafismoa.

#### Jarrerazkoak:

- Kartelak prestatzeko teknikak aukeratzen partaidetza aktiboa izatea.
- Festara edo ikuskizunera gehien egokitzen diren kartelak hautatzeko interesa.
- Arauak errespetatzea eta talde-lanean sartzeta.
- Kolore egokienak aukeratzen laguntzea.
- Kartelen gaia eta grafismoa eta koloreak aukeratzeko teknika egokienak zehazteko norberaren gaitasunaz ohartzea.
- Teknologia berriak erabiltzeko interesa.
- Ohiko arau grafikoak errespetatzea.

### 3. lanbide-modulua. ANIMAZIORAKO JOKOAK ETA JOLAS-EKINTZA FISIKOAK

#### a) Amaierako gaitasunak

Lanbide-modulu hau amaitzean ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

1. Jokoek jolas-ekintza fisikoen animaziorako egiten duten ekarpena aztertzea eta beren izaera ludikoa baloratzea.
2. Parte-hartzaileen ezaugarri, interes eta/edo beharretara egokituko den jokoaren programa bat egitea.
3. Joko-mota desberdinak gidatu eta dinamizatzea eta animaziorako metodologia behar bezala aplikatzea.

#### b) Ebaluazio-irizpideak

1. Jokoek jolas-ekintza fisikoen animaziorako egiten duten ekarpena aztertzean eta beren izaera ludikoa baloratzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Jokoaren eta kirolaren arteko erlazioa adieraztea olgetaren esparruaren testuinguruan jarrita.
- Joko-mota desberdinak –herrikoiak edo tradizionalak, kirol alternatiboak, kirolaurrekoak...– eta hauen sailkapenak, ezaugarriak eta edukiak deskribatzea.
- Hainbat joko beren helburuekin eta burutzeko baldintzekin –jokoaren arauak, garapena, metodologia, denboralizazioa, materiala, segurtasun-arauak...– erlazionatzea.
- Populazio-multzo desberdinetarako joko-motarik egokienak adieraztea beren aukerak eta interesak kontuan hartuta.
- Jokoak eduki jakin batzuk lantzeko baliabide metodologiko gisa eta gorputz- eta/edo kirol-ekintzen berezko eduki gisa ematen dituen aukerak bereiztea.
- Jokoari dagokion metodologia identifikatzea eta animazioan duen erabilera justifikatzea.
- Alderdi ludikoak garapen psikomotor, kognitibo, afektibo eta sozialean eta pertsonaren orekan duen garrantzia azaltzea.
- Metodologia ludikorako prestasun positiboa erakustea.

2. Parte-hartzaileen ezaugarri, interes eta/edo beharretara egokituko den jokoaren programa bat egitean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Mota desberdineko jokoaren ezaugarriak, aplikagarritasuna eta garapena jasoko dituen fitxa-eredu bat sortzea.
- Zentzumenezko eta mugimenezko jokoak zehaztea fitxa-eredu jakin baten jarraibideak kontuan hartuta.
- Jokoaren fitxategi bat egitea hainbat sailkapen erabilita:
  - Garatzen direneko ingurunearen edo instalazioen arabera.
  - Parte-hartzaileen adinaren eta ezaugarrien arabera.
  - Helburuen arabera.

- Erabiltzaileen, ingurunearen eta instalazioen ezaugarriak behar bezala identifikatzen direnko suposizio batean:
  - Programan garatuko diren jokoak aukeratu eta sekuentziaztea.
  - Beharrezkoak diren baliabideak aurreikustea eta/edo eskura daudenen artean egokienak aukeratzea.
  - Beharren eta burutzapen-mailaren arabera, jantzi eta osagarri egokiak finkatzea.
  - Jokoen programa parte-hartzaileek ikasteko eta/edo burutzeko dituzten interes, behar eta aukeretara eta garatzen direnko testuingurura egokitzeko beharra justifikatzea.
  - Erabiltzaileen parte-hartzea ahalbidetzen duten ikuskizunak aukeratzea eta guztien parte-hartzea eta interes indibidualekiko errespetua bultzatzea.
  - Programara egokitutako eta erabiltzaileek parte hartzeko moduko ikuskizun edo txapelketa bat asmatzea eta bere inplementazioa deskribatzea.
  - Programatutako jokoen irakaskuntzan eta/edo animazioan jarraitu beharreko prozesu osoa azaltzea eta taldearen harremanak dinamizatzeko eta aurreikusitako helburuak lortzeko hartutako erabakiak justifikatzea.
  - Programa alternatiboak ezartzea ager daitezkeen kontingentziei aurre hartuta.
  - Aurreikusitako helburuen lorpena eta parte-hartzaileen gogobetetze-maila ondorioztatzea ahalbidetzen duten faktoreak finkatzea.
  - Irakaskuntza indibidualizatzea parte-hartzailearen egoera fisikoa, burutzapen-maila eta interesa kontuan hartuta.

### 3. Joko-mota desberdinak gidatu eta dinamizatzean eta animaziorako metodologia behar bezala aplikatzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Erabiltzailearena egingo duten pertsona batzuekin adierazpen-jokoak, herrikoiak, kirolaurrekoak, kirol tradizionalak eta kirol alternatiboak praktikan jartzea eta ondoko alderdiak azpimarratzea:
  - Jokoaren garapena eta arauak modu garbi, zehatz eta estimulazailer batean azaltzea.
  - Jokoa ulertzeko beharrezkoak diren erakustaldiak egitea.
  - Ekintzak hala eskatzen duenean, beroketa- eta errekupeazio-aldiak programatu eta zuzentzea.
  - Ekintza hasi aurretik instalazioak eta materialak ikuskatzea: erabilgarritasuna, egoera, egokitasuna, parte-hartzaileen ezaugarrietara egokitzeko beharra...
  - Parte-hartzaileen ezaugarriak kontuan hartuta, ekipoak osatzea eta espazioak eta materiala banatzea.
  - Parte-hartzea estimulatzeko modu desinhibitu batean interpretatzea, inprobisatzea eta hitzez eta gorputzez adieraztea.
  - Jokoa garatzean gorabeherak antzematea, konpontzeko bidezkoak diren argibideak ematea eta kontingentziak egokiro konpontzea.
  - Intentsitate- eta zailtasun-maila parte-hartzaileen ezaugarri errealetera eta zirkunstantzietara egokitzea.
  - Jokokiko jarrera positiboa erakustea eta jokoetan desinhibituta parte hartzea.
  - Ekintza antolatu eta garatzean parte-hartzaileen segurtasuna zaintzea eta hauei behar bezala laguntzea.
  - Parte-hartzaileak ekintzari buruzko iritziak adierazteko motibatzea.
  - Parte-hartzaileei beren aurrerapen eta akatsen berri ematea eta beren eboluzioa eta gozamen-maila baloratzea.

#### c) Edukiak

##### I. multzoa: JOKOAREN FUNTS TEORIKOA. INTERESAK ETA ERABILERAK

###### Prozedurazkoak:

- Jokoak diren ekintzak bereiztea.
- Testuinguru edo egoera bakoitzean jokoen beharrak justifikatzea.
- Turismo-inguruneetarako eta beste lanbide-testuinguru batzuetarako kirol, jolas-izaerako kirol-ekintza eta jokorik garrantzitsuenak zehaztea.
- Eboluzio-etapetako jokoen beharrak bereiztea eta lotzea.
- Pertsonari dagozkion esparruak bereiztea eta eduki ludikoekin erlazionatzea.

- Edukiak aldatzea aldagai ludikoarekin eta aldagai hori gabe tratatuz.

#### Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Jokoaren kontzeptua.
- Haurren eta helduen jokoen ezaugarriak.
- Jokoaren jatorriari buruzko teoriak eta jokoaren erabilerak gaur egun.
- EAEko jokoei eta jolas-ekintzei lotutako berezitasun kulturalak, tokikoak, soziologikoak eta ekonomikoak.
- Eboluzio-etapak eta jokoak.
- Planteamendu ludikoa eta pertsonari dagozkion esparruen garapena.
- Jokoaren eta jolas gisako kirolaren arteko desberdintasunak eta antzekotasunak. Jokoa gorputz- eta kirol-ekintzak lantzeko baliabide metodologiko gisa.
- Ondoko lanbide-testuinguruetakoko erabiltzaileen jolas- eta kirol-interesak:
  - Hotelak, opor-zentroak eta enpresa turistikoak.
  - Ingurune naturala.
  - Kiroldegiak.
  - Geriatrikoak.
  - Ikastetxeak.
  - Gizarte-klubak.
- Jokoen bidez eta jokorik gabe landutako zereginetan/edukietan aplikatzeko eta hauek egokitzeko aldagai ludikoak.

#### Jarrerazkoak:

- Ludikoa dena giza izaerari datzekion faktore gisa identifikatzea.
- Jokoaren baliotasun eta beharraren estimazio positiboa eboluzio-etapak eta pertsonari dagozkion esparruak lantzerakoan.
- Alderdi ludikoa aplikazio ugariarako baliabide gisa baloratzea: garapen psikomotor, kognitibo, afektibo eta sozialerako faktore gisa, pertsonaren orekarako interesa duen aldagai gisa eta abar.
- Zorroztasuna jokoak eta jolas-izaerako kirol-ekintzak aukeratzeko eta lanbide-egoerei edo -interesei egokitzeko irizpideetan.

## II. multzoa: JOKOAK ETA JOLAS-IZAERAKO KIROL-EKINTZAK ERREGISTRATU, SAILKATU ETA USTIATZEKO TEKNIKAK

#### Prozedurazkoak:

- Joko-mota bakoitzaren berezko ezaugarriak aztertu eta deskribatzea.
- Jokoak irizpideen arabera sailkatzea.
- Fitxa-erregistro oso eta funtzional bat diseinatzea eta informazioaren edukia, espazio-antolamendua eta ustiapen-behar guztiak baloratzea. Jokoak antolatu eta sailkatzeko irizpideak finkatzea.
- Joko eta jolas-izaerako kirol-ekintza bakoitzerako fitxa bat egitea ezarritako ereduari jarraiki.
- Joko eta fitxa bakoitzari buruzko datuak eta informazioa erregistratzea.
- Fitxak ondoko alderdien arabera sailkatzea:
  - Helburu psikosomatikoak.
  - Parte-hartzaileen adina eta ezaugarriak.
  - Behar dituzten baliabide materialak.
  - Taldearen antolamendua.
  - Bestelako irizpideak: jatorria, musika-baliabideak...
- Jokoen fitxategia gaurkotasuna eta funtzionaltasuna bermatzeko moduan mantentzea.
- Jokoen fitxategia ustiatzea eta, planteatutako beharretan oinarrituta, beharrezkoak diren fitxak, datuak eta informazioa antolatu, sailkatu, bilatu eta aukeratzeko.
- Jokoen fitxak egin, erregistratu eta sailkatzerakoan informatika-baliabideak erabiltzea.

#### Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Jokoei eta jolas-izaerako kirol-ekintzei buruzko informazioaren ustiapenean aplikatutako datu-baseak. Menuak eta funtzioak. Lanbide-perfilarekin eta sektoreko jarduerarekin bat datozen helburuak.
- Jokoen fitxa: funtzioak, ezaugarriak eta diseinua.

- Fitxaren aldaketak aldagairik ohikoenen arabera.
- Mota eta aplikazio-esparru desberdineko jokoak eta jolas-izaerako kirol-ekintzak:
  - Mugimenezko jokoak.
  - Garapen anatomikoko jokoak.
  - Zentzumenezko jokoak.
  - Adierazpen-jokoak eta musika-euskarri bidezkoak.
  - Lankidetzeta-jokoak.
  - Joko herrikoiak eta/edo tradizionalak: euskal jokoak.
  - Kirolaurre-jokoak.
  - Kirol alternatiboak.
  - Bestelako jokoak eta jolas-izaerako kirol-ekintzak.
- Joko-mota desberdinen aplikagarritasuna eta azterketa, ondoko alderdiei dagokienez:
  - Garapen psikosomatikoaren alderdiak.
  - Eboluzio-etapak.
  - Garatu beharreko nolakotasun fisikoa.
  - Gidaritza- eta arau-maila.
  - Mugimenezko ekintza nagusia.
  - Saioaren zatiak.
  - Ikuskizunak.
  - Espazio fisikoa, materiala, instalazioak, jantziak eta osagarriak.
  - Bestelako faktoreak edo aldagaiak.
- Animatzailearen jokoen fitxategia: egitura eta antolamendua, beharrak, funtzioak.

#### Jarrerazkoak:

- Informatika-baliabideekiko eta garatu beharreko prozesuetan duten aplikazioarekiko interesa.
- Zorroztasuna eta jarrera kritikoa fitxak diseinatzerakoan. Beren funtzionaltasunarekiko eta egungo eta etorkizuneko beharretarako moldagarritasunarekiko interesa.
- Zorroztasuna landutako eta eskura dagoen datu-basea egin eta ustiatzerakoan.
- Datu-basea eguneratzeko eta etengabe eraginkor mantentzeko interesa.

### III. multzoa: JOKOAK ETA JOLAS-IZAERAKO KIROL-EKINTZAK SUSTATU/GIDATU ETA ESPERIMENTATZEKO TEKNIKAK

#### Prozedurazkoak:

- Ahozko eta keinuzko komunikazioko teknikak aplikatu eta bereiztea jokoak aurkeztu, sustatu eta gidatzeko.
- Pertsona eta osatutako talde bakoitzari rola eta zereginak esleitzea beren ezaugarrien arabera.
- Jokoaren garapenari arreta eskaintzea aldagaiak kontrolatuz eta guztia kontuan hartuta jokatuz. Programan barne hartutako monitorearen “feedback” delakoa.
- Jokoen programetan desinhibizioz integratzea.
- Dinamismorik galdu gabe helburuak lortzeko, parte-hartzaileak gogobetetzeko eta gorabeherak konpontzeko giza baliabideak, baliabide materialak eta metodologikoak erabiltzea.
- Hobetu daitezkeen egoeretan sormena, barietatea eta inprobisazioa bermatuko duten teknikak aplikatzea.
- Askotariko jokoak eta jolas-izaerako kirol-ekintzak esperimintatu eta praktikan jartzea.

#### Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Teknikaria joko-animatzaile eta/edo jokoen bidezko animatzaile gisa. Animatzailearen funtzioak jokoaren esparruan.
- Joko eta jolas-izaerako kirol-ekintza bakoitzari egokitutako arauak eta teknikak.
- Jokoaren garapena behatzeko irizpideak.
- Parte-hartzaileen eta animatzailearen espazio-antolaketa ekintza azaldu edo aurkeztu, jarraitu eta bideratzerakoan. Estrategia baliagarriak.
- Argibideak, zuzenketak eta abar ahoz azaltzeko eta egiteko prozedurak eta teknikak.
- Keinuzko informazio osagarriarako prozedurak eta teknikak erakustaldietan, argibideetan eta komunikazioetan oro har.

- Ekiptoak osatu eta baliabideak optimizatzeko irizpideak ondoko helburuetan oinarrituta:
  - Indarren eta abilezien arteko oreka.
  - Adiskidetasuna, talde-identifikazioa.
  - Espazioen erabilgarritasuna.
  - Giza mugak eta muga materialak.
- Materialaren banaketa eta erabilera udako zentroetan, hoteletan eta gainerako turismo-instalazioetan, ikastetxeetan, ingurune naturalean, kiroldegietan, geriatrikoetan, klubetan, elkarteetan eta abar. Ezaugarriak.
- Animazioaren eta gidaritzaren ezaugarriak eta dinamika.
- Jokoen eta/edo jokoen bidezko animatzaileak/gidariak garatu beharreko metodologiak eta teknikak.
- Inprobisazioa eta sormena.

#### Jarrerazkoak:

- Erakutsitako hitzeko eta keinuzko komunikaziorako gaitasuna baloratzea ondorengo garapenaren arrakastarako oinarri gisa.
- Metodologia eta teknika ludikoek animaziorako eta askotariko aplikazioetarako baliabide gisa duten garrantzia baloratzea.
- Jokoarekin identifikatzea eta jokoan integratzea.
- Desinhibizioz integratu eta parte hartzea animazio eta arbitrajearako eta parte-hartzearen eta sormenaren estimulaziorako beharrezkotzat hartzea.
- Etengabeko prestakuntzarekiko eta sektoreko behar aldakorretarako egokitzapenarekiko interesa.

#### IV. multzoa: JOKOEN, JOLAS-IZAERAKO KIROL-EKINTZEN ETA IKUSKIZUN LUDIKOEN PROGRAMAZIOA ETA ANTOLAKETA TESTUINGURU DESBERDINETAN

##### Prozedurazkoak:

- Jokoak helburuen arabera aukeratu eta bereiztea, sekuentziatzea eta parte-hartzaileen eta eskura dauden baliabide materialen ezaugarrietara egokitzea.
- Joko bakoitzerako egokiena den saioaren zatia identifikatzea.
- Jolas- eta kirol-ikuskitzuna koherentziaz eta programa, instalazioak eta lanbide-testuingurua kontuan hartuta antolatzea.
- Jolas- eta kirol-ikuskitzuna antolatzeko beharrezkoa den dokumentazioa ezagutu eta erabiltzea.
- Diseinatutako programarako ebaluazio-tresna egokiak eta eraginkorrenak aukeratzeko.
- Jokoen saioa garbi eta koherentziaz azaldu eta justifikatzea, erabili beharreko baliabideak eta lortu beharreko helburuak adieraziz eta erlazionatuz.
- Jokoen saioen gidaritza simulatzea.
- Saioa eta programa ebaluatzea.

##### Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Jokoen saioen egitura. Faseak. Intentsitateak. Helburuak.
- Saioaren fase bakoitzerako joko egokiak. Aukeraketa- eta banaketa-irizpideak.
- Programazioaren oinarriak. Saio sekuentziatuen ereduak.
- Jolas- eta kirol-ikuskitzuna:
  - Ikuskizun-motak eta jokoen programa baterako balioetasuna.
  - Protokolo-ekitaldiak.
  - Pertsonala eta funtzioak.
  - Dokumentazioa eta publizitatea.
  - Jokoen eta ikuskizunen arautegia eta kalifikazioa.
  - Turismo-instalazio baten ereduak ezaugarriak.
- Jokoen saioa gidatzeko oinarriak.
- Jokoen saioak behatzeko irizpideak.
- Jokoen programak eta ikuskizunak ebaluatzeko oinarriak.

##### Jarrerazkoak:

- Zorroztasuna jokoak sekuentziazterakoan, proposatzen diren helburuetarako egokitzapena kontuan hartuta.
- Programaren antolaketa eta aplikazioaren lidergoa bere gain hartzea.
- Programatutako joko-dinamikan integratzeko interesa.
- Objektibotasuna ebaluatzerakoan.
- Etengabeko prestakuntzarekiko eta sektoreko behar aldakorretarako egokitzapenarekiko interesa.

#### 4. lanbide-modulua. KULTUR JARDUERAK ETA BALIABIDEAK

##### a) Amaierako gaitasunak

Lanbide-modulu hau amaitzean ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

1. Kultur baliabide ohikoenak eta ingurunean daudenak eta animazio turistikoan horien ahalbideak aztertzea.
2. Kultur animazioko jarduerak diseinatzea eta zuzenduta dauden taldearekin eta aukeratutako baliabidearen ezaugarriekin erlazionatzea.
3. Animazio turistikoaren kultur baliabide ezaugarrienak erabiltzea, aurreikusitako jardueretara egokituta.
4. Diseinatutako kultur animazioko jarduerak zuzendu eta dinamizatzea, bezeroaren itxaropenei erantzuteko moduan.
5. Garatutako ekintzen kalitate-adierazleak eta horietan partaideek izandako atsegina-maila neurtu eta aztertzea eta lortutako emaitzak ebaluatzea, etorkizuneko jarduerari begira.

##### b) Ebaluazio-irizpideak

1. Kultur baliabide ohikoenak eta ingurunean daudenak eta animazio turistikoan horien ahalbideak aztertzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Turistek edo bisitariak aisialdian dituzten kultur interesak eta eskariak identifikatzea.
- Ingurunearen edo kulturaren ezaugarri adierazgarrienak deskribatzea.
- Ingurunean dauden baliabideei buruzko informazio-iturriak adieraztea.
- Baliabide bakoitza animazio turistikorako dituen ahalmenekin erlazionatzeko irizpideak zehaztea.
- Lortutako emaitzak ondokoa jasoko duten fitxa teknikoaren bidez antolatzea:
  - Baliabidearen kokapena.
  - Bertaratzeko aukerak.
  - Ezaugarri garrantzitsuenak.
  - Gara daitezkeen erabilerak eta jarduerak, bai bertakoak bai osagarriak.
  - Erabileraren intentsitatea eta urtarokotasuna.
  - Aurrekontu ekonomikoa.

2. Kultur animazioko jarduerak diseinatzean eta zuzenduta dauden taldearekin eta aukeratutako baliabidearen ezaugarriekin erlazionatzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Baldintza turistiko batzuetatik eta talde jakin batetik abiatuta:
  - Establezimenduaren xedeak, programazioaren eskakizunak eta parte hartzen duen taldearen ezaugarri orokorrak identifikatzea.
  - Partaideen interesguneak eta motibazioa identifikatzea.
  - Jarduera-mota aukeratzea.
  - Denborak banatzeko irizpideak ezartzea.
  - Beharrezko materialak eta ekipoak zehaztea.
  - Ezagutzera emateko baliabide egokia ezartzea.
  - Jarduera prestatzeko jarraibideak ezartzea.
  - Hala badagokio, aplika daitezkeen arau didaktikoak ezartzea.

- Erabili beharreko animazio-teknika zehaztea eta zein talderi zuzenduta dagoen eta aukeratutako jardueraren arabera egindako egokitzapenak azaltzea.
- Jarduerara egokitutako ezagutzera emateko baliabideak zehaztea.
- Gorabeherak ebazteko eta jarduera ebaluatzeke neurriak zehaztea.
- Erakusketa bat antolatzeari buruzko kasu praktikoan:
  - Erakutsi beharreko produktuak aukeratzea.
  - Lekuaren antolamendua zehaztea, krokisen edo antzeko baliabideen bitartez.
  - Erakustokiak edo erakusketa-baliabideak antolatzea eta beharrezkoa denean horiek lantzea.
  - Argiztapen eta joan-etorri egokia ziurtatzeko beharrezko lanak egitea.
  - Laguntzeko eta informazioa emateko jarduerak zehaztea.
- Bisitaldi bati buruzko kasu praktikoan:
  - Interesgunea zehaztea eta aukeraketa justifikatzea.
  - Baimenak eta garraibideak lortzeko tramiteak deskribatzea.
  - Ibilbidea eta informazio-jarduerak zehaztea.
  - Jardueraren denbora-egitura zehaztea.
- Kultur produktuen fondo txiki bat antolatzeari buruzko kasu praktikoan:
  - Lekuaren antolamendua zehaztea eta, hala badagokio, produktuak biltzeko beharrezko materialak lantzea.

### 3. Animazio turistikoaren kultur baliabide ezaugarrienak erabiltzean, aurreikusitako jardueretara egokituta, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Aukeratutako jarduerak garatzeko beharrezko baliabideak (girotzekoak, erabilera pertsonalekoak, taldeko erabilerakoak) prestatzea:
  - Prestaketa-jarduerak kudeatzea.
  - Kultur produktuak jaso eta aukeratzeko arauak eta prozedurak zehaztea.
  - Erabiltzeko lekuak diseinatzea.
  - Hala badagokio, kolektibo bereziak parte hartzeko beharrezko laguntza teknikoak identifikatzea.
  - Hala badagokio, eskura ez dauden materialak lantzea.
  - Baliabide teknikoak erabiltzea.

### 4. Diseinatutako kultur animazioko jarduerak zuzendu eta dinamizatzean, bezeroaren itxaropenei erantzuteko moduan, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Taldeko bisitaldi edo jarduera bati buruzko kasu praktikoan:
  - Lokalen, ekipoen eta materialen alde aurreko doikuntza eta finkatutako pertsonen prestasuna gainbegiratzea.
  - Lau hizkuntzetako edozeinetan, argiro, zehaztasunez eta modu erakargarrian, egin beharreko jardueren programa, ordutegiak, bestelako informazio interesgarriak eta bidezko dokumentazioa partaideei jakinaraztea.
  - Jarduera hasieran, berori zuzendu behar duten funtzionamendu-arauak taldeari proposatzea.
  - Taldearen galderak eta/edo proposamenak eraginkortasunez interpretatzea eta ahal izanez gero horiek programara egokitzea.
  - Jardueran zehar sor daitezkeen ezustekoak edo gorabeherak antzeman eta eraginkortasunez ebaztea.
  - Esleitutako zereginak zuzentzea, beharrezko argibideak emanda eta erabiltzaileak jardueraren garapenean inplikaturik.
  - Jardueraren garapenera lotutako teknikak aplikatzea, berariazko materiala behar bezala erabilia.
  - Jardueretan parte hartzen duen taldea gainbegiratzea, gatazketarako hautabideak eskaintzea eta haren segurtasuna ziurtatzea.

### 5. Garatutako ekintzen kalitate-adierazleak eta horietan partaideek izandako atsegina maila neurtu eta aztertzean eta lortutako emaitzak ebaluatzean, etorkizuneko jarduerari begira, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Taldeko bisitaldi edo jarduera bati eta gertakari edo erakusketa bat antolatzeari buruzko kasu praktikoan:
  - Taldearen atsegin-maila eta helburuak bete diren jakiteko jarraitu beharreko irizpideak zehaztea.
  - Neur daitezkeen kalitatearen alderdiak aldeztu aurretik aukeratzea.
  - Informazio hori zein tresnarekin bilduko den zehaztea: atsegin-mailari buruzko inkestak, bertaratuen kopurua, horien partaidetza eta erakutsitako interesa (galderak, eskatutako materiala eta abar).
  - Neurketan lortutako emaitzak behar bezala interpretatzea, etorkizuneko ekintzak hobetu ahal izateko.
  - Jarduera berrietarako aldaketak, zabalkuntzak eta/edo egokitzapenak proposatzea.
  - Materialak berritzeari eta berriak erosteari buruzko informazioa ematea.
  - Jarduera amaitzean, ezarritako irizpideen eta prozeduren arabera txosten argia eta egokia lantzea.

## c) Edukiak

### I. multzoa: INGURUNEKO KULTUR BALIABIDEAK

#### Prozedurazkoak:

- Inguruneko aberastasun natural eta kultural ezaugarrienak aztertzea.
- Aberastasun horiek animazio turistikoan dituzten aukerak zehaztea.
- Baliabideak esparruaren arabera sailkatzea.
- Eskualdeko kultur eskaintzak ikuskizunak eta/edo jarduerak antolatzeko ematen dituen aukerak baloratzea.
- Informazio-iturri ohikoenak erabiltzea.
- Ingurunearen balio artistiko-kulturalak interpretatzea.
- Aukeratutako baliabideek taldearentzat duten interesa eta atsegin-maila ebaluatzea.

#### Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Interesguneak behar bezala aukeratzeko tokiko eta eskualdeko informazio-iturri ohikoenak.
- Kultur baliabideak:
  - Aberastasun naturalak eta ingurumenekoak.
  - Ondare historiko-artistikoa.
  - Erabilera eta ohitura herrikoiak.
  - Aberastasun eta aniztasun gastronomikoa.
  - Musika eta folklore herrikoiak.
  - Ikuskizun eta antzezpen eszenikoak.
  - Artisautzako teknikak eta produktuak.
  - Eskualdeko iturri eta baliabide teknologiko alternatiboak.
- Ondare historiko-artistikoari buruzko oinarritzko legeria.
- Elkarteei eta fundazioei buruzko legezko araudia.
- Kultur fondoak. Antolamendua eta erabilpena.

#### Jarrerazkoak:

- Ingurunearen ezaugarriak ezagutzeko eta ezagutzera emateko interesa.
- Baliabide interesgarriak bilatzen laguntzea.
- Lanean ordena eta zuhurtasuna izatea.
- Lanbide-jarduera garatzen deneko ingurunera egokitzea.
- Prestakuntza trukatzeko partaidetza aktiboa izatea.
- Interesguneak aurkitzeko norberaren ahalmenaz jabetzea.
- Kultur aniztasuna errespetatzea.

### II. multzoa: KOMUNIKABIDEAK ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK

#### Prozedurazkoak:

- Kasuak kasu komunikazio-teknika egokienak erabiltzea.

- Lengoaia bisualaren elementu nagusiak identifikatzea.
- Argazki- eta bideo-kamera erabiltzaile-mailan maneiatzea.
- Jarduera bakoitzerako komunikazio-baliabide egokiena aukeratzea.
- Jarduera ezagutzera emateko kartel egokiak egitea.
- Kasu bakoitzerako beharrezko baliabide materialak zehaztea.
- Baliabideak ebaluatzeko irizpideak finkatzea, erabileraren eta sorrarazitako atsegin-mailaren arabera.

#### Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Adierazpen-teknikak.
- Kartelgintza.
- Lengoaia bisuala: irudiaren banaketa, forma, kolorea eta abar.
- Argazki-kamerak: ezaugarriak eta erabilerak.
- Bideo-kamerak: erabiltzeko oinarrizko ezagutzak.
- Beste prestaketa-baliabide batzuk:
  - Lekuen banaketa.
  - Lokalen ezaugarriak.
  - Argiaren erabilpena.

#### Jarrerazkoak:

- Baliabide materialak eta ikus-entzunezkoak bilatzeko ekimena.
- Kultur baliabide gisa teknikaren garrantzia baloratzea.
- Lanean ordena eta zuhurtasuna izatea.
- Kultur aniztasuna errespetatzea.
- Espazioak eta baliabideak banatzeko gustua eta harmonia.

### III. multzoa: KULTUR JARDUERAK ANTOLATU, BURUTU ETA EBALUATZEA

#### Prozedurazkoak:

- Taldearen beharretarako kultur jarduera egokienak aukeratzea.
- Jarduerak antolatzeko metodologia egokiena erabiltzea.
- Erabili beharreko animazioko baliabideak eta teknikak zehaztea.
- Programatutako jarduerak egitea.
- Aukeratutako materiala antolatu behar bezala eta erabiltzea.
- Sor daitezkeen ezustekoak antzeman eta ebaztea.
- Animazio-ekintzak ebaluatzea, ondorengoak hobetzeko asmoz.

#### Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Kultur egoera aztertu, ikertu eta diagnostikatzeko teknikak:
  - Esparru ideologiko-politiko ezaugarritzea.
  - Beharrak aztertzea.
  - Kultur eskaria aztertzea.
- Kultura eta baloreak:
  - Tradiziozko gizarte-moduak.
  - Masifikazioa.
  - Arazoen mundu-mailako hedapena.
  - Ikuskizunaren gizarte.
- Baliabideak antolatzeko prozedurak eta teknikak:
  - Lan-taldea:
    - \* Elkarreragin-motak.
    - \* Bilera-motak.
    - \* Lekuaren azpiegitura.
  - Aurrekontua:
    - \* Motak eta moduak.
    - \* Egitea.

- Diru-laguntzak eta babesleak.
- Baliabideak antolatzea: gertakariak eta lantegiak.
- Plangintza-teknikak:
  - Planak, programak eta proiektuak lantzeko irizpideak.
  - Plangintzaren tresna metodologikoak:
    - \* Eragin-taldeak antzematea.
    - \* Jarduerak egiteko leku-esparrua.
    - \* Jarduerak egiteko denbora-esparrua.
    - \* Sentsibilizaziorako edo motibaziorako metodoak eta teknikak.
- Animaziorako teknikak eta metodoak:
  - Erabakia, ekintza, erantzukizuna.
  - Informazioa erregistratu eta birziklatzea.
- Ebaluazio-metodoak:
  - Motak.
  - Irizpideak.
  - Ereduak diseinatzea.
  - Denborak.
  - Adierazleak.
  - Ebaluazio-matrizeak.
  - Iritzia.

#### Jarrerazkoak:

- Talde-lanerako alde aurreko jarrera eta iradokizunak onartzeko ahalmena.
- Ekimena eta jarrera kritikoa hautabideak proposatzean.
- Jarduera egiteko autonomia.
- Erabaki koherenteak hartzeko jarrera.
- Uneko legeria eta moraltasuna errespetatzea.
- Aniztasun kulturala eta etnikoa errespetatzea.
- Teknika egokiak aukeratzeko irudimena eta sormena.
- Gainerako taldekideekiko gizarte- eta komunikazio-tratu egokia eta errespetuzkoa.

## 5. lanbide-modulua. TURISMOAREN ESPARRUKO ANIMAZIOA

### a) Amaierako gaitasunak

Lanbide-modulu hau amaitzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

1. Animazio-zerbitzu bat eskain dezaketen ostatu turistikoaren, ez-turistikoaren eta bestelako turismo- eta hotel-establezimenduen egitura funtzionala eta antolamendukoa eta harreman-ingurunea eta animazio-departamentuaren helburuak eta barruko harremanak aztertzea.
2. Partaideen ezaugarrietara, interesetara eta beharretara egokituko diren animazio turistikoko programak diseinatu eta lantzea.
3. Animazioa aztertzea eta berori gara daitekeen esparruen testuinguruan kokatzea, animazio turistikoaren berariazko ezaugarriak barne hartuta.
4. Taldeak animatzeko prozedura eta/edo teknika desberdinak ezaugarritu eta aplikatzea eta taldeen ezaugarriak, motak eta barne-harremanak aztertzea.
5. Argibideak, informazioak, ideiak edo iritziak emateko eta zereginak esleitzeko asmoz, taldeekin komunikatzeko teknikak eraginkortasunez erabiltzea, mezuak horien hartzailerei egokituta.

### b) Ebaluazio-irizpideak

1. Animazio-zerbitzu bat eskain dezaketen ostatu turistikoaren, ez-turistikoaren eta bestelako turismo- eta hotel-establezimenduen egitura funtzionala eta antolamendukoa eta harreman-ingurunea eta animazio-departamentuaren helburuak eta barruko harremanak aztertzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Ostatu emateko formula desberdinak ondokoaren arabera sailkatu eta ezaugarritzea:
  - Zerbitzu-mota.
  - Oinarrizko ezaugarriak.
  - Bezeroen tipologia.
  - Europako, nazio mailako eta autonomia-erkidegoko araudia.
  - Arlo funtzionalak.
- Antolamendu eraginkorra baldintzatzen duten faktoreak deskribatzea.
- Establezimendu-mota desberdinetako arlo, departamentu eta azpidepartamentu ezaugarrienak deskribatzea.
- Establezimendu horien esparruan ezartzen diren departamentuen arteko harremanak azaltzea.
- Lanpostu desberdinak deskribatzea (lanbide-gaitasuna zehazteko prozedurak aplikatuta) eta beharrezko lanbide-lorpenen eta eskatutako lanbide-alorraren arabera ezaugarritzea.
- Establezimendu horien kanpoko harremanak deskribatzea.
- Jarduera garatzean sortzen diren barruko eta kanpoko informazioaren zirkuituak eta motak deskribatzea.
- Establezimendu-mota desberdinen eskaria osatzen duten aldagaiak adierazi eta elkarrekin erlazionatzea.
- Departamentuaren helburuak ezartzeko irizpideak kontuan hartzea.
- Animazio-departamentuak ezarri behar dituen departamentu arteko harremanak azaltzea.

2. Partaideen ezaugarrietara, interesetara eta beharretara egokituko diren animazio turistikoko programak diseinatu eta lantzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Jarduera desberdinen ezaugarriak, aplikagarritasuna eta garapena jasoko dituen fitxa-eredua sortzea.
- Fitxa-eredu jakin baten jarraibideak kontuan izanda jarduerak ezaugarritzea.
- Sailkapen desberdinak erabilita jardueren fitxategi bat lantzea:
  - Zein ingurune edo instalaziotan garatzen diren kontuan izanda.
  - Partaideen adinaren eta ezaugarrien arabera.
  - Ditutzen helburuen arabera.
- Zailtasun bereziak dituzten kolektiboen beharrak identifikatzea, jardueretan beharrezko laguntza teknikoak eta egokitzapenak zehazteko.
- Erabiltzaileen ezaugarriak eta ingurune eta instalazioarenak behar bezala identifikatzen dituen suposizioan:
  - Programan garatuko diren jarduerak aukeratu eta sekuentziaztea.
  - Sekuentzia erabakitzea eta partaide-motaren, jardueren eta egonaldiaren iraupenaren arabera hura bereiztea.
  - Programa burutzeko beharrezko instalazioak eta baliabideak adieraztea, haren bideragarritasuna aldeztuta.
  - Gastuen balioespen ekonomikoa lantzea, zein kontu-sailetara zuzentzen diren adierazita.
  - Ondokoa kontuan izanda, ebaluazio-metodoa ezartzea:
    - \* Hura egiteko irizpideak eta uea.
    - \* Beharrezko berrelkadura-elementuak.
    - \* Barne-faktoreak (taldea, jarduera-mota, aurreikusitako helburuak) eta kanpokoak (meteorologia, instalazioen eskuragarritasuna...).
    - \* Eskura dauden baliabideen erabilpen-maila eta espero diren etekinak.
    - \* Aurrekontu-baldintzak.
    - \* Eskariaren atsegina zehazteko baliabideak.
    - \* Diseinatutako jardueren egokitzapena.
- Jardueren programaren egokitzapena justifikatzea, partaideen interesen, beharren eta ikasteko eta/edo burutzeko ahalmenen arabera eta, era berean, jarduera horiek zein testuingurutan garatzen diren kontuan izanda.
- Parte hartzen duten erabiltzaileei proposatuko zaizkien gertakariak aukeratzea.
- Lana eraginkortasunez antolatu eta mantentzeko jarrera erakustea.
- Garatzen den lanaren erantzukizuna hartzea betiere.

3. Animazioa aztertzean eta berori gara daitekeen esparruen testuinguruan kokatzean, animazio turistikoaren berriazko ezaugarriak barne hartuta, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Gizarte- eta kultur animazioa ezaugarritzea eta berori barne har dezaketen esparruen eta erakundeen testuinguruan kokatzea.
- Animatzailearen esku-hartzea ostalaritza eta turismoaren sektorearen testuinguruan kokatzea.
- Animazioak, aisialdi-eskariari dagokionez, egungo bizimoduaren ondoriozko beharrei erantzuteko egiten duen ekarpena azaltzea.
- Aisialdiak gure kulturaz izandako bilakaera eta aisialdiaren eta denbora librearen pedagogia-printzipioak deskribatzea.
- Kolektibo jakin batzuen (zaharrak, gazteak, haurrak, baztertuak, minusbaliatuak) ezaugarri komunak eta berezitasun psikologikoak azaltzea, irizpide ebolutiboak, sozialak eta kulturalak erabilita.
- Gaur egungo gizartearen arriskuak, abenturak eta ihesbideak duten garrantzia azaltzea eta animazioan jokabide ausartegiari, patologiakoei eta legez kanpokoei aurrea hartzeko mugak ezagutzea.
- Emozio biziaren eta krisi-egoeren seinaleak eta jarrerak identifikatzea eta horiek indartzeko edo bideratzeko jardun-estrategiak proposatzea.
- Aldagaiak edo hautabideak proposatzean ekimena eta jarrera kritikoa izatea.
- Lankide, bezero, hornitzaile eta abarrekiko gizarte- eta komunikazio-tratu egokia eta errespetuzkoa izatea.

4. Taldeak animatzeko prozedura eta/edo teknika desberdinak ezaugarritu eta aplikatzean eta taldeen ezaugarriak, motak eta barne-harremanak aztertzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Lidergoaren nozioa zehaztea eta lider gisa jarduteko estilo desberdinak deskribatu eta alderatzea.
- Talde-topaketetan animatzailearen “rolak”, funtzioak eta zereginak eta berarengandik eskatzen diren nolakotasunak ezaugarritzea.
- Talde bateko kideek har ditzaketen ereduak “rolak” eta haien ekarpenak hobetzeko eta taldeko integrazioa eta bat egitea optimizatzekeko estrategiak deskribatzea.
- Talde barruko komunikazio-prozesuaren elementuak eta funtzionamendua deskribatzea.
- Arazoak/gatazkak konpontzeko estilo desberdinak, horretarako etapak eta animatzaileak horietako bakoitzean hartu beharreko “rola” alderatzea.
- Taldeak animatzeko teknikak eta prozedurak burutzeko prozesuak deskribatzea eta horiek simulazioetan aplikatzea, erabaki eta esku-hartze bakoitza justifikatuta.
- Behar bezala ezaugarritutako talde-dinamikari buruzko kasu praktikotik abiatuta, hura aztertu ondoren, esku hartzeko proposamena justifikatzea.
- Behar bezala ezaugarritutako talde baten barruko arazo suposatuetan, erabakiak hartzeko etapak aplikatzeko simulazioa egitea, hartutako aukerak justifikatuta.
- Simulazioan, talde-dinamikako teknika desberdinak eta animazio-prozedurak aplikatzea.
- Lana eraginkortasunez antolatu eta mantentzeko jarrera erakustea.
- Garatzen den lanaren erantzukizuna hartzea betiere.
- Dagokion mailan, erabaki koherenteak hartzeko jarrera erakustea hala eskatzen duten egoeren edo arazoaren aurrean.

5. Argibideak, informazioak, ideiak edo iritziak emateko eta zereginak esleitzeko asmoz, taldeekin komunikatzeko teknikak eraginkortasunez erabiltzean, mezuak horien hartzaileei egokituta, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Mezuan erabilitako komunikazio-mota eta komunikazio egokia lortzeko hartutako estrategiak identifikatzea.
- Komunikazio-prozesuaren etapak sailkatu eta ezaugarritzea.
- Mezua ulertzea zailtzen duten interferentziak identifikatzea.
- Dagokion jarduerari eta berori garatzen den inguruneari buruzko fitxak, informazio-txostenak, posterrak eta abar lantzea, beharrezko informazioa bildu eta interesa piztuko duten moduan.

- Jardueraren informazio osagarria jakitera emateko baliabide ikus-entzunezkoak eta grafikoak aukeratu eta erabiltzea.
- Jarduerari buruzko informazioa eman dezaketen kanpoko baliabideak identifikatzea.
- Egoeraren testuingurura egokitutako hitzezko edo keinuzko komunikazio-teknikak aukeratu eta erabiltzea.
- Mezuaren testuingurua, xedea eta edukia behar bezala identifikatuko dituen suposizioan, baliabide egokia aukeratu izana justifikatzea eta hura jakitera emateko simulazioa egitea.
- Jasotako argibideak interpretatzeari eta betetzeari dagokionez ardura erakustea.
- Garatzen den lanaren erantzukizuna hartzea betiere.
- Aldagaiak edo hautabideak proposatzean ekimena eta jarrera kritikoa izatea.

### c) Edukiak

## I. multzoa: ANIMAZIO TURISTIKOAREN TESTUINGURUA

### Prozedurazkoak:

- Animazio-departamentu bat izan dezaketen ostatueterako formulak aztertu eta sailkatzea.
- Establezimendu horien arlo, departamentu eta azpidepartamentu ezaugarrienak eta departamentuen arteko eta kanpoko harremanak aztertzea.
- Lanpostu desberdinak aztertu eta deskribatzea.
- Animazio turistikoa ezaugarritzea.
- Dauden animatzaile- eta animazio-ereduak aztertzea.
- Aisialdiak gure kulturaren izandako bilakaera aztertzea.
- Aisialdiaren eta denbora librearen pedagogia-printzipioak identifikatzea.

### Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Establezimendu turistikoa:
  - Hotelak.
  - Oporretako hiriak.
  - Turismo-kanpalekuak.
  - Apartamentu turistikoa.
  - Bestelako establezimenduak.
- Animazio-departamentua:
  - Establezimendu turistikoen barne-antolamendua.
  - Departamentuen arteko harremanak.
  - Barne-osaera:
    - \* Espazioak.
    - \* Giza baliabideak.
  - Inbentarioak lantzea eta materialak kudeatzea.
  - Baliabide ofimatikoak.
  - Aurrekontuak landu eta kontrolatzea.
- Animazio turistikoa.
- Denbora libre:
  - Nozioak. Definizioak. Esparrua. Ezaugarriak.
  - Bilakaera.
- Animazioaren helburuak ostalaritza eta turismoaren sektorean.
- Animatzailearen esku-hartzearen printzipioak.
- Psikologia eta soziologia animazioan:
  - Ikuspegi antropologikoak eta oinarri etikoak.
  - Gizarte-pedagogia, esku hartzeko eredu gisa.
  - Talde-psikologia.
  - Aisiaren, denbora librearen, turismoaren eta kirolaren soziologia.
  - Talde ebolutiboak: ezaugarriak, beharrak, aisia-eskaera.
  - Ostalaritza eta turismoko zerbitzuen erabiltzaileen eskarian eta beharretan eragina duten gizarte- eta kultur alderdiak.

#### Jarrerazkoak:

- Arauak errespetatzea eta talde-lanean sartzeta.
- Eskura dauden baliabideak aprobetxatzeko jarrera.
- Ordena eta metodoa zereginak banatzean.
- Norberaren itxura zaintzea eta ezarritako higie- eta osasun-arauak (norberaren garbitasuna, laneko arropak eta abar) betetzea.

### II. multzoa: ANIMAZIO-PROGRAMAK

#### Prozedurazkoak:

- Jardueren fitxategi bat sortzea.
- Parametro desberdinak kontuan hartuta jarduerak sailkatzea.
- Jarduerak programatzea.
- Talde bakoitzari egokitutako jarduerak arrazoiz aukeratzea.
- Baliabideak eta instalazioak aukeratu eta egokitzea.
- Aurrekontuak egitea.
- Aurreikusitako programaren garapena kontrolatzea.
- Ebaluazio-sistemak landu eta aplikatzea.

#### Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Animazio-ereduak:
  - Animaziorako proposamen metodologiko berriak.
  - Animazioaren eredu sistematiko barne hartzailea.
- Printzipio metodologikoak.
- Jardueren eskaintza bat lantzeko irizpideak eta prozedurak.
- Programazioaren elementuak:
  - Sekuentzia.
  - Koherentzia.
- Programazio-mailak.
- Proiektuen eta jardueren denborak banatzeko irizpideak.
- Ebaluazio-teknikak.
  - Atzeraelikadura-prozedura.
- Materialak erabili, antolatu eta kontrolatzea.
- Garapena eta partaidetza kontrolatzea.
- Gorabeherak aurreikusi eta kontrolatzea.

#### Jarrerazkoak:

- Arauak errespetatzea eta talde-lanean sartzeta.
- Eskura dauden baliabideak aprobetxatzeko jarrera.
- Ordena eta metodoa programak antolatzean.
- Norberaren itxura zaintzea eta ezarritako higie- eta osasun-arauak (norberaren garbitasuna, laneko arropak eta abar) betetzea.

### III. multzoa: TALDEAK DINAMIZATZEKO TEKNIKAK

#### Prozedurazkoak:

- Dauden taldeen aniztasuna deskribatzea.
- Taldeak aztertze teknika zehaztea.
- Dauden komunikazio-teknika aztertzea.
- Taldeak dinamizatzeko teknika egokiak konbinatzea.
- Une bakoitzean ahozko edo keinuzko komunikazio-teknika egokiak aukeratu eta erabiltzea.
- Gatazkak konpontzeko teknika egokiak aukeratzea.
- Datuak biltzeko teknika deskribatzea.
- Gatazka bat konpontzea eskatuko duen suposizio simulatu batetik abiatuta talde bat dinamizatzea.

### Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Taldea:
  - Taldeak aztertzeke teknikak.
    - \* Behaketa.
    - \* Galdera-sorta.
    - \* Elkarrizketa.
    - \* Teknika soziometrikoak.
    - \* Taldeen osaera.
- Komunikazio-teknikak:
  - Batzarrak.
  - Bilerak.
  - Sinposiuma.
  - Mahainguruak.
  - Panela.
  - Elkarrizketa.
  - Eztabaida publikoa.
- Taldeak dinamizatzeko teknikak:
  - Zuzendutako eztabaida.
  - Mintegia.
  - Brainstorming.
  - Dramatizazioa.
  - Prozesu eragilea.
  - Foroa.
  - Batzarra.
- Gatazkak:
  - Behaketa-gidoia eta autoanalisisa.
- Datuak biltzeko teknikak:
  - Elkarrizketa.
  - Inkesta.
  - Zundaketa.

### Jarrerazkoak:

- Lanari lotutako errealitatea kritikoki behatzea.
- Komunikazioa errazten duten komunikazio- eta harreman-dohainak.
- Talde koordinatuak antolatzeke sentikortasuna eta sormena.
- Ordena eta metodoa jarduera zuzentzeke, eta kasu zehatz bakoitzeke sortzen diren beharrei erantzutea.

## 6. lanbide-modulua. ATZERRIKO HIZKUNTZA

### a) Amaierako gaitasunak

Lanbide-modulu hau amaitzeke, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharke ditu:

1. Solaskide bateke atzerriko hizkuntzan ahoz komunikatzea, sektoreareke barruan lanbide-harreman bat ezartzeko beharrezkoa den informazioa interpretatu eta transmitituz.
2. Atzerriko hizkuntzan idatzitako sektoreareke berezko informazioa interpretatu eta ama hizkuntzara itzultzea, ekintza eta/edo zeregin egokiak burutzeko funtsezko datuak aztertuz.
3. Sektoreari dagozkion dokumentuak eta txostenak atzerriko hizkuntzan zuzen, zehaztasuneke, koherentziak eta kohesioz idatzi eta/edo betetzeke, informazio orokorra edo zehatza eskatuz eta/edo emanek.
4. Atzerriko hizkuntzaren herrialdeko protokolo-arauak aztertzea, herrialde horreke ezarritako lanbide-harremanetan irudi egokia eman ahal izateko.

### b) Ebaluazio-irizpideak

1. Solaskide batekin atzerriko hizkuntzan ahoz komunikatzean (sektorearen barruan lanbide-harreman bat ezartzeko beharrezkoa den informazioa interpretatu eta transmitituz) ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Sektorerearen berariazko hiztegia identifikatzea.
- Lan-bileretan, telefono-elkarrizketetan eta tituluan adierazitako jardueren lotutako bestelako lanbide-egoeretan erabili ohi diren lexiko eta protokolo-formulak deskribatzea.
- Lanbide-hizkuntzan erabiltzen diren gramatika-egiturak aipatzea.
- Sektorerearen berezko jardueren baten alderdi puntual bati buruzko informazioa eskatzea, ezarritako arauak aplikatuz eta lexiko egokia erabiliz, simulatutako telefono-elkarrizketa batean nahiz aurreko elkarrizketa batean.
- Eskatutako informazioa ematea, ahalik eta doitasun eta zehaztasun handienarekin adierazteko beharrezkoak diren formulak eta lexikoa erabiliz, simulatutako telefono-elkarrizketa batean nahiz aurreko elkarrizketa batean.
- Sektorereko ohiko lanbide-jardueren bati lotutako mezu grabatu bat deskifratzeko funtsezko datuak identifikatzea.
- Simulatutako laneko bilera batean jasotako informazioa interpretatzea.
- Simulatutako laneko bilera batean jasotako informazioa transmititzea, erregistro egokia aukeratuz.
- Informazioaren trukean aktiboki parte hartzea.

2. Atzerriko hizkuntzan idatzitako sektorerearen berezko informazioa interpretatu eta ama hizkuntzara itzultzean (ekintza eta/edo zeregin egokiak burutzeko funtsezko datuak aztertuz) ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Atzerriko hizkuntzaren eta ikaslearen ama-hizkuntzaren arteko erlazio semantikoak identifikatzea.
- Atzerriko hizkuntzaren herrialdeetako bateko aldizkari batean sektorerearekin zerikusia duen sekzioa edo sekzioak aukeratzea.
- Atzerriko hizkuntzaren herrialdeetako bateko aldizkari batean sektorerearen berezko terminologia identifikatzea.
- Atzerriko hizkuntzan idatzitako sektorereko informazio-testu baten funtsezko datuak aukeratzea.
- Arestian aukeratutako datuak garrantziaren arabera sailkatzea.
- Atzerriko hizkuntzan idatzitako sektorerearen berezko informazio-testu bat laburtzea.
- Lanbide-sektoreari dagokion idazki bat kontsultarako material egokiaren laguntzarekin itzultzea.

3. Sektorerari dagozkion dokumentuak eta txostenak atzerriko hizkuntzan zuzen, zehaztasunez, koherentziaz eta kohesioz idatzi eta/edo betetzean (informazio orokorra edo zehatza eskatuz eta/edo emanez) ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Sektorerearen berariazko merkataritza- eta kudeaketa-dokumentuen berezko terminologia banan-banan aipatzea.
- Merkataritza-korrespondentzian erabilitako formulak azaltzea.
- Sektorerearen berariazko merkataritza- eta kudeaketa-dokumentuak emandako datuen eta informazioaren arabera betetzea.
- Lanbide-egoera zehatz batean eskatutako hizkuntzaren alderdi formalak gutun baten, fax baten eta, oro har, correspondentziaren idazkuntzan aplikatzea.
- Gutun edo antzeko dokumentu baten idazkuntzan, aldeztatik ezarritako sektorerearen berariazko formulak erabiltzea.
- Gutunen bidez komunikatu nahi den informazioa antolatzea.
- Suposizio desberdinetan (hitzaldia, dokumentuak, mintegia, bilera...) jasotako datuetan oinarritutako txosten argi eta zehatza lantzea, xedearen eta/edo hartzailearen arabera aldeztatik ezarritako egiturak eta loturak erabiliz.
- Adierazitako jardueretan gizarte-, merkataritza- eta kudeaketa-protokoloa betetzea.

4. Atzerriko hizkuntzaren herrialdeko protokolo-arauak aztertzean herrialde horrekin ezarritako lanbide-harremanetan irudi egokia eman ahal izateko, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Atzerriko hizkuntzaren herrialdean nagusi diren lanbide-azturak eta ordutegi-ohiturak adieraztea.
- Atzerriko hizkuntzaren herrialdeko enpresa baten barruko hierarkia-maila desberdinen artean dauden lanbide-harremanetako protokoloak eta arauak identifikatzea.
- Simulatutako telefono-elkarrizketa batean nor bere burua aurkeztu eta solaskidea ezagutzeko adeitasun-formula egokiak bete, deia iragazi eta informazioa eman edo jasotzea, enpresaren irudi ona emanez.
- Jasotako datuetatik eta informaziotik abiatuta, atzerriko lanbide-egonaldi simulatu bat antolatzea, herrialdearen berezko ohiturak, lanbide-azturak eta ordutegiak kontuan hartuz.
- Suposiziopean atzerriko enpresa batera egindako bisitaldi batean lanbide-harremanak ezartzea, lanbide-nortasunari egokitutako protokolo-arauak zuzen erabiliz.
- Atzerriko enpresa baterako bisitaldia eragin duten puntuei buruzko informazioa eman edo jasotzea, herrialdeko lanbide-protokoloarekin bat datorren portaera azalduz.
- Atzerriko enpresa bateko lankide baten egonaldi simulatua antolatzea, jarduera-programa baten lanketan lagunduz eta parte hartuz.
- Lanbide-bisitaldiaren plangintza egiten aktiboki laguntzea.
- Herrialdeko gizarte- eta lan-ingurunearekiko interesa azaltzea.
- Atzerriko hizkuntzaren protokoloetara moldatzea.
- Norberaren itxura zaintzea lanbide-irudi serioa ematearren.
- Beste usadio eta pentsamoldeak errespetatzea.

### c) Edukiak

#### I. multzoa: AHOZKO HIZKUNTZA

##### Prozedurazkoak:

- Grabatutako mezu bat jasotzea.
- Telefono-dei bat egin eta jasotzea.
- Elkarrizketa batean sektorearen berezko informazioa elkarri ematea.
- Simulatutako lan-bilera batean jasotako informazioa ahoz transmititzea.
- Lankideekiko harremanetan protokolo-arauak erabiltzea bi herrialdeen artean simulatutako lanbide-trukeetan.
- Simulatutako lanbide-harreman batean laneko aginduak jaso eta bidaltzea, atzerriko hizkuntzaren herrialdeko usadio sozioprofesionaletara moldatuz.
- Lanbide-egoera batean elkarrizketarako formula egokiak erabiltzea.

##### Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Sektorearen berriazko terminologia.
- Ahozko lanbide-komunikazioan erabiltzen diren formulak eta esamoldeak.
- Ahozko hizkuntza formalak berezkoak dituen galderazko, baiezko eta ezezko formulak.
- Atzerriko hizkuntzaren herrialdeetan nagusi diren lanbide-azturak eta ordutegi-ohiturak.
- Atzerriko hizkuntzaren herrialdeko enpresa baten hierarkia-maila desberdinen artean dauden lanbide-harremanetako protokoloak eta arauak.

##### Jarrerazkoak:

- Informazioa elkarri ematen aktiboki parte hartzea.
- Herrialdeko gizarte- eta lan-ingurunearekiko interesa.
- Atzerriko hizkuntzaren protokoloetara moldatzea.
- Norberaren itxura zaintzea lanbide-irudi serioa ematearren.
- Beste usadio eta pentsamoldeak errespetatzea.

#### II. multzoa: IDATZIZKO HIZKUNTZA

### Prozedurazkoak:

- Atzerriko hizkuntzan idatzitako argitalpen batean sektorearekin zerikusia duen sekzioa edo sekzioak eta informazio-testu bateko funtsezko datuak aukeratzea.
- Aurrez aukeratutako datuak sailkatzea.
- Atzerriko argitalpen batean sektorearen berezko terminologia identifikatzea.
- Sektorearen berezko testu bat idatziz laburbiltzea.
- Lanbide-sektoreari buruzko idazki bat itzultzea.
- Gutunak, faxak eta, oro har, korrespondentzia idaztea.
- Esparru sozioprofesionalean aurrez ezarritako gutun-formulak erabiltzea.
- Lanbideari dagokion gai bati buruzko txosten garbi eta zehatz bat egitea.
- Elementu morfosintaktikoak lanbide-dokumentu baten lanketara egokitzea: perpausaren egitura, aditz-denborak, lokarriak eta menderakuntza, forma inpertsonalak, boz pasiboa eta abar.
- Atzerrian eman beharreko lanbide-egonaldi eta/edo atzerriko enpresa bateko lankide baten bisitaldi simulatu baten plangintza egitea.

### Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Sektorearen berariazko terminologia.
- Korrespondentzian eta, oro har, idatzizko komunikazioan erabili ohi diren formulak eta egiturak.

### Jarrerazkoak:

- Simulatutako lanbide-bisitaldi batean jarduera-programa baten lanketan laguntzea.
- Idatzizko komunikazioan merkataritza-protokoloa eta kudeaketakoa betetzea.
- Lanean txukuna eta ordenatua izatea.

## 7. lanbide-modulua. ATZERRIKO BIGARREN HIZKUNTZA

### a) Amaierako gaitasunak

Lanbide-modulu hau amaitzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

1. Komunikazio-egoera desberdinetan (ohikoak, pertsonalak eta profesionalak) ahozko mezuen informazio orokorra eta berariazkoa ulertzea.
2. Komunikazio-egoera desberdinetan (ohikoak, pertsonalak eta profesionalak) ahozko mezu sinpleak sortzea.
3. Testu idatzi moldatuak eta jatorrizkoak interpretatzea, eguneroko bizitzako nahiz lanbide- eta kultur bizitzako alderdiei lotutako informazio orokorrak eta berariazkoak lortuz.
4. Atzerriko hizkuntzan idatzitako eta ikaslearen behar eta interes sozioprofesionalei lotutako testu errazak ama hizkuntzara itzultzea.
5. Jarduera zehatz baten arabera, oinarritzko testu idatziak atzerriko hizkuntzan idaztea.
6. Atzerriko hizkuntzaren herrialdeko protokolo-arauak aztertzea, herrialde horrekin ezarritako lanbide-harremanetan irudi egokia eman ahal izateko.

### b) Ebaluazio-irizpideak

1. Komunikazio-egoera desberdinetan (ohikoak, pertsonalak eta profesionalak) ahozko mezuen informazio orokorra eta berariazkoa ulertzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Ahozko diskurtso koherente baten ulermenerako erregelak identifikatzea.
- Beharrezkoa den oinarritzko lexikoa identifikatzea.
- Hizkuntza ezagunetan antzekoak izanik ere desberdinak diren hizkuntz egiturak eta hiztegia ezagutzea akatsak saihesteko.
- Iraupen mugatuko audio- edo bideo-testu baten berariazko informazioa biltzea.
- Audio- edo bideo-testu labor bategan emandako mezuen elementurik azpimarragarrienak atzerriko hizkuntzan ahoz identifikatzea.

2. Komunikazio-egoera desberdinetan (ohikoak, pertsonalak eta profesionalak) ahozko mezu sinpleak sortzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Oinarrizko ahozko adierazpenerako beharrezkoak diren hizkuntz egiturak eta hiztegia ezagutzea.
- Nork bere burua eta besteak aurkezteko formulak deskribatzea.
- Audio- edo bideo-testu labur bat atzerriko hizkuntzan ahoz laburtzea.
- Jasotako agindu batzuetatik abiatuta, simulatutako telefono-dei bat egitea pertsona egokiari buruz galdetuz, datu zehatzei buruzko informazioa eskatuz eta galderei modu garbi eta sinple batean erantzunez.
- Lanbide-esparruko elkarrizketa batean formulatzen diren galderei egitura sinpleko esaldiekin erantzutea.
- Lanbide-esparruko elkarrizketa batean erantzuteko gaitasunik izan ezean baliabide alternatiboak erabiltzea.
- Lanbide-esparruko elkarrizketa batean galdera sinpleak egitea.
- Elkarri informazioa ematen aktiboki parte hartzea.

3. Testu idatzi moldatuak eta jatorrizkoak interpretatzean (eguneroko bizitzako nahiz lanbide- eta kultur bizitzako alderdiei lotutako informazio orokorrak eta berariazkoak lortuz) ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Sektorearen berezko hiztegi teknikoa identifikatzea.
- Ikaslearentzat interesa duen gai bati buruz atzerriko hizkuntzan idatzitako luze-labur mugatuko testu bat irakurri ondoren, galdera ireki edo itxietako galde-sorta bati nolabaiteko konplexutasuneko egitura duten esaldiekin erantzutea.
- Lanbide-alderdi bati lotutako testu luze bat ahoz edo idatziz laburtzea.
- Sekuentzia logiko bati jarraiki, nahasita aurkeztutako kontakizun baten zati desberdinak ordenatzea.
- Identifikaziorik gabeko testu labur bat zein dokumentu-mota den ondorioztatzea, osatzen duten elementuen analisi logiko bati jarraituz.
- Testu idatzi batean termino ezezagunik badago, testuinguruaren, analogia etimologikoaren edo hitzen osaeraren arabera esanahiak ateratzea.
- Testu idatzi batetik ideia nagusia ateratzea.
- Testu idatzi batetik berariazko informazioa lortzea.

4. Atzerriko hizkuntzan idatzitako eta ikaslearen behar eta interes sozioprofesionalei lotutako testu errazak ama hizkuntzara itzultzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Oinarrizko zailtasun-maila duen argibide-gidaliburu bat itzultzea.
- Hiztegiaren laguntzarekin lanbide-sektoreari buruzko dokumentu bat (erregelamendua, araudia, antolamendu-aginduak eta abar) itzultzea.
- Hiztegiaren laguntzarekin, lanbide- nahiz kultur alderdiengatik ikaslearentzat interesa izan dezakeen testu bat itzultzea.

5. Jarduera zehatz baten arabera oinarrizko testu idatziak atzerriko hizkuntzan idaztean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Merkataritza-korrespondentzian ohikoak diren estilo-formulak aipatzea.
- Prentsan lan-eskaintza bat irakurri ondoren, enplegu-eskabide bat egitea.
- Atzerriko hizkuntzan “curriculum vitae” labur bat idaztea.
- Lanbide-sektoreari buruzko ereduak dokumentuak betetzea.
- Agindu zehatz batzuetatik abiatuta merkataritza-gutun bat idaztea, alderdi formalak aplikatuz eta sektorean aurretik ezarritako estilo-formulak erabiliz.
- Berariazko komunikazio-helburua duen txosten txiki bat hartzailearentzat ulergarria izango den testu-antolamendu egoki batekin lantzea.

6. Atzerriko hizkuntzaren herrialdeko protokolo-arauak aztertzean herrialde horrekin ezarritako lanbide-harremanetan irudi egokia eman ahal izateko, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Atzerriko hizkuntzaren herrialdeko gizarte-erreferentziarik orokorrenak, usadio eta ohiturak eta protokolo-arauak ezagutzea.
- Atzerriko herrialdeko enpresa baten barruko hierarkia-maila desberdinen artean dauden lanbide-harremanetako arauak identifikatzea.
- Simulatutako telefono-elkarrizketa batean nor bere burua aurkeztu eta solaskidea ezagutzeko protokolo-arau egokiak bete, deia iragazi eta informazioa eman edo jasotzea, enpresaren irudi ona emanez.
- Atzerriko hizkuntzaren herrialdean eman beharreko lanbide-egonaldi simulatu baten plangintza egiterakoan ordutegi-ohiturak, lanbide-azturak eta protokolo-arauak kontuan hartzea.

### c) Edukiak

#### I. multzoa: AHOZKO HIZKUNTZAREN ERABILERA

##### Prozedurazkoak:

- Ahozko mezu batetik informazio orokorra eta berariazkoa lortzea.
- Audio- edo bideo-testu labur baten ahozko laburpena egitea.
- Jasotako agindu batzuetan oinarrituta telefono-deiak egitea.
- Egitura sinpleko galderak eta erantzunak formalizatzea.
- Erantzuteko gaitasunik izan ezean, baliabide alternatiboak erabiltzea.

##### Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Oinarrizko hiztegia (ohiko egoerak)
- Oinarrizko mintzamenerako eta ahozkoaren ulermenerako beharrezkoak diren hizkuntz egiturak.
- Oinarrizko lexiko sozioprofesionala.
- Aurkezteko, agurtzeko edo eskertzeko formulak.
- Hizkuntza ezagunetan antzekoak izanik ere desberdinak diren hizkuntz egiturak eta hiztegia.

##### Jarrerazkoak:

- Elkari informazioa ematen aktiboki parte hartzea.
- Atzerriko hizkuntzako protokoloetara moldatzea.

#### II. multzoa: IDATZIZKO HIZKUNTZAREN ERABILERA

##### Prozedurazkoak:

- Testu idatzi sinple batetik informazio orokorra eta berariazkoa lortzea.
- Hiztegia sistematikoki erabiltzea.
- Lanbide-sektoreari lotuta dauden edo ikaslearentzat interesa duten argibide-gidaliburuak eta dokumentuak itzultzea.
- Obra tekniko instrumentalak erabiltzea (kontsulta-liburuak, testu espezifikoak).
- Lanbide-alderdi bati lotutako testu baten laburpena egitea.
- Eskabide edo curriculum-vitae labur bat egitea.
- Sektorari lotutako ereduak dokumentuak betetzea.
- Berariazko komunikazio-helburua izango duen txosten txiki bat egitea.
- Merkataritza-gutunak idaztea sektorean alde aurretik ezarritako alderdi formalak eta estilo-formulak erabiliz.
- Testuinguruaren, analogia etimologikoaren edo hitzen osaeraren arabera termino ezezagunen esanahiak ondorioztatzea.

##### Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Lanbide-sektorearen berezko hiztegi teknikoak.

- Atzerriko hizkuntzan idatzitako merkataritza-korrespondentzian ohikoak diren estilo-formulak.
- Elementu morfosintaktiko konplexuak: menpeko perpausak, boz pasiboa, aditz-sintagmako komunztadura...

#### Jarrerazkoak:

- Testu-mota desberdinen antolamenduari buruzko ezagutzak atzerriko bigarren hizkuntzara transferitzea.
- Idatzizko komunikazioan merkataritza-protokoloa eta kudeaketakoa betetzea.

### III. multzoa: ALDERDI SOZIOPROFESIONALAK

#### Prozedurazkoak:

- Simulatutako telefono-elkarrizketa batean beharrezkoak diren arauak betetzea.
- Atzerriko hizkuntzaren herrialdean eman beharreko lanbide-egonaldi simulatu baten plangintza egiterakoan ordutegi-ohiturak, lanbide-azturak eta protokolo-arauak betetzea.

#### Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Gizarte-erreferentziarik orokorrenak, usadioak eta ohiturak.
- Protokolo sozioprofesionala: adeitasun profesionaleko formulak, enpresako hierarkiaren eta gizarte-rol desberdinen tratamendua.

#### Jarrerazkoak:

- Bestelako usadio eta pentsamoldeekiko errespetua.

### 8. lanbide-modulua LAN-PRESTAKUNTZA ETA ORIENTABIDEA

#### a) Amaierako gaitasunak

Lanbide-modulu hau amaitzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

1. Prebentzio- eta/edo babes-ekintzak zehaztea, titulazioan aipatzen diren ekintzek sortzen dituzten arrisku-faktoreak eta osasunarentzako eta ingurumenarentzako ondorioak txikiagotuz.
2. Egoera simulatuetan, istripuaren lekuan oinarritzko osasun-neurriak berehala aplikatzea.
3. Lan-kontratazioaren modalitateak eta norberaren konturako langile gisa lan-munduratzeko prozedurak aztertzea.
4. Lanbide-ibilbideak ezartzea, norberaren gaitasunak eta interesak identifikatuz eta eskueran dagoen informazio publikoa erabiliz.
5. Lanaren lege-esparrua interpretatzea eta lan-harremanetatik ondorioztatzen diren eskubideak eta betebeharrak bereiztea.
6. Estatuko eta EAEko egitura sozioekonomikoa identifikatzea, titulazioak aipatzen duen produkzio-sektorearen neurria, osaera eta aurreikusitako bilakaera bereziki aztertuz.
7. Sektoreko enpresa esanguratsu baten oinarritzko antolamendu-egitura identifikatzea.
8. Sektoreko ereduazko enpresa baten memoria ekonomikoaren parametro azpimarragarriak interpretatzea.

#### b) Ebaluazio-irizpideak

1. Prebentzio- eta/edo babes-ekintzak zehaztu eta titulazioan aipatzen diren ekintzek sortzen dituzten arrisku-faktoreak eta osasunarentzako eta ingurumenarentzako ondorioak txikiagotzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Sektorean garatzen diren industria-prozesuetatik eratorzen diren ingurumenarentzako ondorioak azaltzea.
- Bere lan-esparruan ohikoenak diren arrisku-egoera eta/edo -faktoreak identifikatzea.

- Sektorean ohikoak diren gaixotasun profesionalak, osasunari egindako kalteak eta/edo lan-istripuak deskribatzea.
- Aipatu diren lan-jardueren burutzapenean sortzen diren ohiko gaixotasun profesionalak, osasunari egindako kalteak eta lan-istripuak sailkatzea.
- Prebentzio- eta/edo babes-jarduneko teknika orokorrak bere lan-esparruan ohikoak diren arrisku-egoera eta/edo -faktoreekin erlazionatzea.
- Bere lan-esparruan ohikoenak diren arriskuei dagozkien prebentzio- eta/edo babes-jarduerak proposatzea.
- Lehen laguntzarako botikina egoera egokian edukitzea.
- Enpresaren barruan eta kanpoan segurtasunaren alorrean eskumena duten organoak identifikatzea.
- Ohiko prebentzio- eta/edo babes-elementuak egiaztatzea, ezarrita dauden arauak kontuan izanik.
- Lana burutzerakoan ingurumenari egindako kalteak saihestu edo txikiagotzeko har daitezkeen neurriak proposatzea.

2. Egoera simulatuetan, istripuaren lekuan oinarrizko osasun-neurriak berehala aplikatzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Lanbidearen burutzapenean ohikoak diren lesio eta/edo istripuen aurrean jarduteko prozesua edo protokoloa azaltzea.
- Lesioak bizitzarentzat duten arriskuaren arabera sailkatzea.
- Lesionatu bat baino gehiago dagoenean edo pertsona batek lesio bat baino gehiago duenean, esku-hartzean lehentasuna nor duen identifikatzea. Hau egiteko irizpidea honakoa izango da: lehendabizi bizitzarentzat arrisku handiena duen lesioari arreta eskaintzea.
- Aurreko kasuan agertzen diren lesioen arabera aplikatu behar diren neurrien sekuentzia identifikatzea.
- Osasun-teknikak gauzatzea (erreanimazioa, inmobilizazioa, eramatea...), ezarrita dauden protokoloak aplikatuz.
- Bidezko organismoetara deitzea zaurituta dauden pertsonak eraman eta zaintzeko.
- Istripuren bat egonez gero, azkar eta eraginkortasunez jardutea.

3. Lan-kontratazioaren modalitateak eta norberaren konturako langile gisa lan-munduratzeko prozedurak aztertzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Norberaren konturako langile gisa jarduteko eratze-prozesuan inplikatura dauden erakundeak adieraztea, burutu behar diren tramiteak azalduz.
- Norberaren konturako langile gisa zergei eta Gizarte Segurantzari dagokionez dauden betebeharrak deskribatzea.
- Bere produkzio-sektorean (indarrean dagoen legeriaren arabera) dauden lan-kontrataziorako modalitate desberdinak identifikatzea.
- Kontratazio-modalitate desberdinak konparatzea, bakoitzaren ezaugarriak adieraziz (iraupena, soldata edo beste edozein aldagai azpimarragarri kontuan izanik).
- Sektorean normalki egiten diren kontratuak formalizatzea, dagozkien eredu ofizialetan.
- Norberaren konturako langile gisa jartzearen ondoriozko zergei eta Gizarte Segurantzari loturiko betebeharrei buruzko dokumentazioa betetzea inprimaki ofizialetan.
- Langile autonomo gisa jartzeko egon daitezkeen finantzaketa-iturriak, dirulaguntzak eta/edo bestelako abantailak ezagutzea.
- Norberaren konturako langile gisa jartzeko beharrezko dokumentazioa betetzea inprimaki ofizialetan.
- Norberaren konturako lana eta besteren konturako lana alderatzea, lan-munduratzeko modu posible gisa.

4. Lanbide-ibilbideak ezartzean, norberaren gaitasunak eta interesak identifikatuz eta eskueran dagoen informazio publikoa erabiliz, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Lortutako gaitasun, jarrera eta ezagutzetatik eratortzen den lanbide-balioa identifikatzea.
- Bere esparruan dagoen lan-eskariaren baldintzak interpretatzea, lortutako lanbide-balioarekin erlazionatuz.

- Lan-munduratzeko aukerak izan ditzakeen zonako prestakuntza-eskaintzari eta enpresa-ehunari buruzko informazio-iturriak erabiltzea, enplegu-eskaintzarekiko dituen iguripenei lotuta enpresaren datuak eta informazioa lortuz.
- Prestakuntza-premia osagarriak ondorioztatzea, dituen enplegu-aukerak zabaltzeko eta/edo behin enplegua lortu ondoren aberastasun profesionala lortzeko.
- Prestakuntza-ibilbideak ezartzea antzemandako beharren arabera.
- Enplegua lortzeko teknikak prestatzea eta, horretarako elkarriketak egitea, testak betetzea eta abarri buruzko simulazioak egingo dira.
- Enplegu batean aurkezteko eta/edo eskaria egiteko dokumentuak lantzea.

5. Lanaren lege-esparrua interpretatzean eta lan-harremanetatik ondorioztatzen diren eskubideak eta betebeharrak bereiztean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Lan-zuzenbidearen oinarriko iturriak azaltzea (Konstituzioa, Langileen Estatutua, Europako Batasunaren Arteztarauak, Hitzarmen Kolektiboa eta abar), dagozkion eskubideak eta betebeharrak bereiziz.
- Negoziazio kolektiboko prozesu bat, suposiziopean, deskribatzea, negoziatu ohi diren aldagai garrantzitsuenak adieraziz: soldatak, segurtasuna eta higiena, produktibitatea eta abar.
- Besteren konturako langileentzako Gizarte Segurantzari eta INEMi (edo bere funtzioak bere gain hartzen dituen EAEko organismoari) lotutako prestazioak eta betebeharrak identifikatzea, suposizio desberdinen arabera.
- Besteren konturako langile batentzako soldata-agiriak formalizatzea, suposizio desberdinetan oinarrituz.
- Hartzekoen likidazio batean agertzen diren kontzeptu desberdinak interpretatzea.
- Suposizio desberdinetan oinarrituz hartzekoen likidazioak kalkulatzeko.
- Inprimaki ofizialetan errenta-aitorpen sinpleak betetzea, lortutako errendimendu desberdinak identifikatuz eta zerga-zorra kalkulatzeko.

6. Estatuko eta EAEko egitura sozioekonomikoa identifikatzean, titulazioak aipatzen duen produkzio-sektorearen neurria, osaera eta aurreikusitako bilakaera bereziki aztertuz, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Magnitude makroekonomiko nagusiak (BPG...) interpretatzea eta hauen artean dauden erlazioak azaltzea.
- Produkzio-sektore desberdinak sailkatzea, bai eta hauek euskal ekonomian duten garrantzi erlatiboa ere.
- Bere produkzio-sektorearen egituraketa deskribatzea, hau da, bere tamaina, enpresen tamaina, kopurua eta mota, populazio aktiboa, okupazio-tasa eta abar, ezaugarri bereizgarriren bat ote dagoen adieraziz.
- EAEko sektorearen informazioa eta egituraketa Estatuko gainontzekoarekin erlazionatzea, lan-munduratzeko posible baterako zonei buruzko datuak lortzeko moduan.
- Sektorean aurreikusten den eboluzioa, hazkundea, egon daitezkeen aldaketa teknologikoak eta abar adieraztea.

7. Sektoreko enpresa esanguratsu baten oinarriko antolamendu-egitura identifikatzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Sektoreko kudeaketa-eredu esanguratsuen deskribapena egitea.
- Sektoreko enpresa esanguratsu baten funtzio-arloen azalpena egitea.
- Sektoreko enpresa baten oinarriko organigrama interpretatzea, azpian dauden aginte- eta komunikazio-erlazioak eta abar azalduz.
- Suposizio baten pean, enpresa baten egituraren bere lanbideari loturiko funtzioak kokatzea.
- Bere lanbideari datzekion jardueren garapen normalean enpresa bateko funtzio-arlo desberdinekin sor daitezkeen erlazioak adieraztea.
- Bere jarduerak burutzerakoan enpresako beste sekzio batzuekin sortzen diren koordinazio-beharrak azaltzea.

8. Sektoreko ereduzko enpresa baten memoria ekonomikoaren parametro azpimarragarriak interpretatzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Sektoreko enpresa bateko balantze baten eta galdu-irabazien kontu baten partida nagusiak azaltzea.
- Aztergai dugun sektoreko enpresa baten suposizio batean finantza-egoera zehazten duten oinarritzko ratioak (finantza-autonomia, kaudimena...) kalkulatu eta interpretatzea.
- Sektoreko enpresa baten oinarritzko aurrekontuen egituraren eta hauek barne hartzen dituzten kontzeptuen deskribapena egitea.
- Sektoreko enpresa baten oinarritzko aurrekontuak interpretatzea.
- Aurrekontuak lantzerakoan laguntzea.
- Egon daitezkeen finantzaketa-bideak bereiztea (autofinantzaketa, leasing...).

c) Edukiak

I. multzoa: SEGURTASUNA ETA OSASUNA

Prozedurazkoak:

- Segurtasun eta higienaren alorrean eskuduntza duten organismoak identifikatzea.
- Arriskuen prebentzioa: prozedurak.
- Lehen laguntzetarako botikina edukitzea.
- Lesioen arriskuaren arabera esku hartzea: lehentasunak identifikatzea eta aplikatu beharreko neurriak sekuentziatzea.
- Osasun-teknikak gauzatzea.
- Zaurituen ebakuazioa eta laguntza: antolaketa.
- Lanbide-jardueraren ondorioz ingurumenari eragiten zaizkion kalteak gutxitzea.

Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Lanbide-gaixotasunak, osasunari egindako kalteak eta lan-istripuak: arriskuaren araberako sailkapena.
- Lesioak: bizitzarentzat duten arriskuaren araberako sailkapena.
- Lehen laguntzak.
- Ingurumena eta industria- edo zerbitzu-prozesuak.
- Lanean babes- eta/edo prebentzio-teknikak.

Jarrerazkoak:

- Ingurumen-kontingentzietarako erantzunak emateko ekimena.
- Talde-lanean jardutea istripuen eta osasunari egindako beste kalte batzuen prebentzioan lorpenak izateko.
- Lanbidearen burutzapenean arduraz jokatzeko ingurumena babesteko.
- Egon daitezkeen istripuen aurrean erantzun azkarra eta eraginkorra ematea.
- Segurtasun- eta higiene-arauak errespetatu eta betetzea.
- Prebentzioa osasunarentzako kalteak saihesteko baliabiderik eraginkorrena bezala baloratzea.

II. multzoa: LAN-ESPARRUA

Prozedurazkoak:

- Eskuratutako gaitasun, ezagutza eta jarreretatik eratorritako balio profesionala identifikatzea.
- Bere eremuko lan-eskariaren eskakizunak interpretatzea eta prestakuntza-beharrak ezagutzea.
- Enplegua lortzeko teknikak eta dokumentuak prestatu eta lantzea.
- Enpresa-ehunari eta prestakuntza-ahalbideei buruzko informazio-iturriak erabiltzea.
- Bere hasierako prestakuntzaren prestakuntza-ibilbide osagarriak ezartzea.
- Dagozkion eredu ofizialetako kontratu-modalitate desberdinak formalizatu eta alderatzea, horien ezaugarrien arabera.
- Interpretazioa, kalkulua eta formalizazioa: hartzekoen likidazioa. Oinarritzko alokairuaren ordainagiria.

- Inprimakiak betetzea eta inplikaturako erakundeen zerrenda: norberaren konturako langile gisa ezarri eta funtzionatzea.
- Norberaren kontura ezartzeko finantzaketa-iturriak, dirulaguntzak eta/edo abantailak ezagutzeta.
- Norberaren konturako lana eta besteren konturakoa elkarrekin alderatzea.
- Beste pertsonetikiko eta erakundeetikiko lan-munduratzetik eratorzen diren betebeharrak eta eskubideak interpretatu eta betetzea.

#### Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Lan-zuzenbidearen oinarrizko iturriak: konstituzioa, arteztarau komunitarioak, langileen estatutua eta hitzarmen kolektiboa.
- Kontratazio-modalitateak, indarrean dagoen legeriaren arabera.
- Betebehar fiskalak eta gizarte-segurantzakoak norberaren konturako lanean.
- Negoziazio kolektiboa.
- Gizarte-segurantzaren eta INEMen sariak eta haiekiko betebeharrak norberaren konturako lanean.

#### Jarrerazkoak:

- Beste pertsonetikiko eta erakundeetikiko lan-munduratzetik eratorzen diren betebeharrak betetzea.
- Lan-harremana erregulatzen duten arauak errespetatzea.
- Behin enplegua lortu ondoren, prestakuntza osagarriaren eta/edo etengabekoaren beharra bere egitea.
- Lanarekiko konpromisoa.

### III. multzoa: EKONOMIA-ESPARRUA

#### Prozedurazkoak:

- EAEn eta Estatuaren gainerakoan dagokion sektorea aztertu eta alderatzea.
- Dagokion sektorean aurreikusitako eboluzioa balioestea.
- Enpresa-egitura eta garatu beharreko jardueren lotutako funtzioen kokapena interpretatzea.
- Oinarrizko organigramak lantzea.
- Lanbide-jarduera garatzean enpresaren beste sekzioekin koordinatzeko beharra antzematea.
- Aurrekontuak lantzen laguntzea.
- Sektoreko ereduako enpresa baten oinarrizko ekonomia- eta finantza-ratioak kalkulatu eta interpretatzea.
- Lanbide-jardueren garapenari buruzko oinarrizko aurrekontuak interpretatzea.

#### Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Magnitude makroekonomiko nagusiak eta horien arteko erlazioa.
- Produkzio-sektoreak eta horien ekarpena Euskal Herriko eta Estatuaren gainerako ekonomian.
- Titulazioari dagokion produkzio-sektorea: konfigurazioa eta aurreikusitako eboluzioa.
- Dagokion sektoreko ereduako enpresa baten funtzio-arloak eta horien arteko erlazioak.
- Sektorearen kudeaketa-eredu adierazgarria.
- Balantzearen galera- eta irabazi-kontuaren partida nagusiak sektoreko ereduako enpresa batean.
- Enpresa baten oinarrizko aurrekontuak: egitura eta kontzeptuak.
- Finantzaketa-motak: oinarrizko eskemak.

#### Jarrerazkoak:

- Laneko bileretan bat etortzeko konpromisoa eta interesa.
- Enpresaren beste sekzioek garatzen duten lanarekiko errespetua.
- Bestelako sailekin koordinatzeko beharra bere egitea.

### 9. lanbide-modulua. KALITATEA ETA ETENGABEKO HOBEKUNTZA

#### a) Amaierako gaitasunak

Lanbide-modulu hau amaitzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

1. “Kalitatearen” kontzeptua, esanahia eta bilakaera historikoa aztertzea, tituluari dagokion lanbide-sektore edo -eremuari dagokionez bereziki.
2. Kalitatea ziurtatzeko aplikatu daitezkeen arauak eta hauen funtzioak eta alderdirik bereizgarrienak aztertzea, lanbide-jarduera edo -burutzapenari lotuz.
3. Lanbide-eremu edo -sektoreari lotutako prozesu edo funtzio esanguratsuetan kalitatea etengabe hobetzeko proiektu edo ekintzetan parte hartzea.

#### b) Ebaluazio-irizpideak

1. “Kalitatearen” kontzeptua, esanahia eta bilakaera historikoa aztertzean (tituluari dagokion lanbide-sektore edo -eremuari dagokionez bereziki), ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Kalitatearen kontzeptuaren bilakaera historikoa deskribatzea, tituluari dagozkion jarduerak esanguratsuei eta sektoreari lotuta.
- Erabateko Kalitateko eredu baten oinarritzko funtsak eta printzipioak identifikatzea.
- Europako Erabateko Kalitateko ereduaren bereizgarriak diren funtsezko alderdi eta elementuak identifikatzea.

2. Kalitatea ziurtatzeko aplikatu daitezkeen arauak eta hauen funtzioak eta alderdirik bereizgarrienak aztertzean (lanbide-jarduera edo -burutzapenari lotuz), ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Bere lanbide-eremuari dagokionez, kalitatea ziurtatzearen helburuak identifikatzea, arauen beharrak ondorioztatuz.
- Kalitatea ziurtatzeko arauen (Europakoak bereziki) edukia interpretatzea.
- Prozesuetan kalitatea ziurtatzeko aplikatu daitezkeen arauak bere lanbide-eremuko jarduerarik esanguratsuenekin lotzea.

3. Lanbide-eremu edo -sektoreari lotutako prozesu edo funtzio esanguratsuetan kalitatea etengabe hobetzeko proiektu edo ekintzetan parte hartzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Suposizio erreal edo simulatuetan:
  - Esku-hartze eta hobekuntzarako aukera-arloak identifikatzea.
  - Oinarritzko kalitate-erremintak erabiltzea.
  - Lanbide-harremanen hobekuntzan eta jardueren garapenean inplikatzeko azturak hartzea.
  - Etengabeko hobekuntzan oinarritutako soluzioetan esku hartzea.
  - Etengabeko hobekuntzan oinarritutako eta bere lanbide-eremu edo -sektoreari lotutako soluzio edo planak ezartzearen emaitzak ebaluatzea.

#### c) Edukiak

- Kalitatearen kontzeptuaren bilakaera historikoa aztertzea, tituluari dagozkion jarduerak esanguratsuei eta sektoreari lotuta.
- Erabateko Kalitateko eredu baten oinarritzko funtsak eta printzipioak identifikatzea.
- Europako Erabateko Kalitateko ereduaren bereizgarriak diren funtsezko alderdiak eta elementuak identifikatzea.
- Bere lanbide-eremuari dagokionez, kalitatea ziurtatzearen helburuak identifikatzea, arauen beharrak ondorioztatuz.
- Kalitatea ziurtatzeko arauak (Europakoak bereziki) interpretatzea.
- Kalitatea ziurtatzeko aplikatu daitezkeen arauak eta ostalaritza eta turismoko sektoreko prozesu eta jarduerarik esanguratsuenekiko loturak identifikatzea.

- Tituluari dagokion lanbide-gaitasunaren prozesu edo jarduera esanguratsu baten edo batzuen datuetatik eta gainerako aldagai deskribatzaileetatik abiatuta eta guztia sektoreko balizko enpresa batean kokatuta:
  - Esku-hartze eta hobekuntzarako aukera-arloak identifikatzea.
  - Oinarrizko kalitate-erremintak erabiltzea.
  - Harremanetan eta jardueren garapenean hobekuntza pertsonaleko jarrerak eta azturak hartu eta ezartzea.
  - Bere mailan, etengabeko hobekuntzan oinarritutako soluzioetan esku hartzea.
  - Etengabeko hobekuntzan oinarritutako eta bere lanbide-eremuari lotutako soluzio edo planak ezartzearen emaitzak ebaluatzea.

## 10. lanbide-modulua. LAN-PRESTAKUNTZA ETA -ORIENTABIDEA

### a) Amaierako gaitasunak

Lanbide-modulu hau amaitzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

1. Administrazioari, merkaturatzeari eta kudeaketari lotutako funtzioetan jardutea eta laguntza ematea, enpresako arduradunaren ikuskapenpean.
2. Establezimenduaren eta esleitutako bezeroen ezaugarriak kontuan izanda jarduera bat diseinatzea.
3. Jarduera prest uztea, ezarritako denboretara eta eskura dagoen espaziora egokituta.
4. Enpresaren diseinua eta itxaropenak kontuan izanda jarduera burutzea.
5. Departamentu barruko zereginak egitea eta haren funtzionamendu egokian laguntzea.
6. Lantokian erantzukizunez jokatzeko eta enpresaren erlazio tekniko eta sozialen sisteman integratzea.

### b) Ebaluazio-irizpideak

1. Administrazioari, merkaturatzeari eta kudeaketari lotutako funtzioetan jardutean eta laguntza ematean, enpresako arduradunaren ikuskapenpean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Enpresa-mota, bere tamaina, bazkide- eta langile-kopurua, forma juridikoa, eskaintza, dihardueneko merkatua, konpetentzia, jarduera-bolumena, bezeroen tipologia, prezioak, sustapenak, antolamendu-egitura eta aipatutako ezaugarrien ondorioz enpresan ezartzen diren funtzioak eta erlazioak aztertzea.
- Enpresak bete beharreko legezko baldintzak eta betebeharrak, beren aldizkakotasuna eta sortzen dituzten arrazoi edo gertakariak identifikatzea, guztia lan-, zerga- eta merkataritza-arloan.
- Enpresako jarduera garatzean beharrezkoak diren dokumentuak aztertzea beren antolamendua, izapideak eta aldizkakotasuna bereziki kontuan hartuta.
- Enpresaren jardueran ohikoak diren dokumentuak, liburuak eta abar egun eskuragarri dauden baliabideekin bete eta lantzea eta beren lanketan, erregistroan, antolaketan, mantentzean eta/edo banaketan arduraz eta eraginkortasunaz jokatzeko.
- Dokumentuen izapideetan laguntzea eta kasu bakoitzean jarraitu beharreko zirkuitu dokumentala aztertzea.
- Enpresaren artxiboen kudeaketan arintasunez eta eraginkortasunez laguntzea.
- Ereduzko merkataritza-egoeretan bezero, hornitzaile eta beste hirugarren batzuei zuzenean, telefonoz eta/edo idatziz erantzutea eta, horretarako, komunikazio- eta harreman-teknika egokiak aplikatzea, eraginkorra izatea eta enpresaren irudia transmititu eta zaintzea.

2. Establezimenduaren eta esleitutako bezeroen ezaugarriak kontuan izanda jarduera bat diseinatzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Eskareren itxaropenak jasotzea eta parte hartzeko dituen aukerak eta uneko nahiak adieraztea.
- Jarduera-mota aukeratzea eta egokitzeko aukerak dituen eta garatzeko bideragarria den baloratzea.

- Jardun-programazioa lantzea, ondokoa jasota:
  - Lortu nahi diren helburuak.
  - Erabili beharreko berariazko metodologia zehaztea.
  - Espazioak eta baliabide materialak eta ekonomikoak aurreikustea.
  - Bezeroen partaidetza-maila eta -bolumena.
  - Jardueren sekuentzia.
  - Jardueraren atzeraelikadura eta ebaluaziorako neurriak.
  - Sustapen-baliabide egokia.
- Programazioa mailaz goragoko dagokionari aurkeztea eta haren iradokizunak aintzat hartzea.

### 3. Jarduera prest uztean, ezarritako denboretara eta eskura dagoen espaziora egokituta, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Entseguak prestatzeko gidoia lantzea eta beharrezko epeak eta saioak finkatzea.
- Entseguak zuzentzean, bezeroen partaidetza aktiboa piztea eta zuzentasunez arreta egitea, hizkuntza eta komunikazio-estrategia egokiak erabilia.
- Jarduera garatzeko beharrezko elementuen prestaketa-jarraibideak bildu eta prestatu edo eskaintzea.
- Materialen egoera egiaztatzean, prestaketa egitea edo horren ardura dutenekin harremanetan jartzea, erabiltzeko prest egongo diren moduan.
- Prestatutako espazioa girotu eta dekoratzea.
- Partaideen makillajeaz eta karakterizazioaz arduratzea.

### 4. Enpresaren diseinua eta itzaropenak kontuan izanda jarduera burutzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Jarduera aurkeztean, partaideengandik zer espero den argi eta garbi azaltzea.
- Jarduera garatzeko aurreikusitako ekintzak burutzea eta jardueraren bilakaeraren arabera uneko aldaketak egitea.
- Bezeroen partaidetza bultzatzea eta haien iritziak jasotzea.
- Antolamenduan zuzenean inplikaturako bezeroen partaidetza kontrolatzea eta sortzen diren kontingentziak ebaztea.
- Erabilitako dekorazio-elementuak eta materialak desmuntatzea eta aldeztatik erabakitako lekuetan uztea.
- Egindako jarduerak ebaluatzean, aurreikusitako atzeraelikadura-sistemak erabiltzea.

### 5. Departamentu barruko zereginak egitean eta haren funtzionamendu egokian laguntzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Aurrekontuak koadratzea eta sortutako desbideratzeak azaltzea.
- Bileretan partaidetza aktiboa izatea, proposamenak eginez eta zereginak eta erantzukizunak bere gain hartuz.
- Jarduera kontrolatu eta ebaluatzeko departamentuak finkatutako dokumentuak betetzea.
- Eskatzen zaizkion txostenak zuzen, txukun eta ordenaz aurkeztea.
- Programa orokorra lantzen parte hartzea, iradokizunak proposatuz eta erabakitakoaren logika ulertuz.

### 6. Lantokian erantzukizunez jokatzeko eta enpresaren erlazio tekniko eta sozialen sisteman integratzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Jasotako aginduak arduraz eta ekimenez interpretatzea eta betetzea eta emandako lanaz arduratzea, une bakoitzean dagokion pertsonarekin eraginkortasunez komunikatuz.
- Lantokian ezarritako barne-prozedurak eta -arauak betetzea eta enpresako aginte-egiturarekiko betiere errespetatuzko jarrera azaltzea.
- Bere lanak zerbitzua kudeatu eta egiteko prozesuan eta enpresaren edo erakundearen helburuen lorpenean dituen ondorioak aztertzea.

- Arau eta prozedura teknikoetan ezarritakora egokitzea (informazioa tratatzeko sistemak, dokumentazioa kudeatu eta betetzea, segurtasun-arauak...) eta kalitatea eta produktibitatea hobetzen parte hartzea.
- Ondo lan egiten duela frogatzea, agindutako helburuak eta zereginak betez eta lanean lehenetsun- eta produkzio-irizpideak eta eraginkortasuna kontuan izanik.

### c) Edukiak

Ikastetxeak “lan-egoeretan” kokatutako jarduera gisa finkatuko ditu edukiak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak argitaratutako *Lantokiko prestakuntza* lanbide-modulua diseinatzeko curriculum-esparruaren arabera.

### 3.3. Heziketa-zikloaren sekuentziazioa eta denboralizazioa

#### 3.3.1. Iraupenak

Lanbide-modulua	Oinarrizko iraupena	Iraupen finkoa
1. Astialdiko eta gizarte-heziketako enpresa txikien antolamendua eta kudeaketa	90 ordu	120 ordu
2. Animaziorako komunikazio-teknikak	120 ordu	120 ordu
3. Animaziorako jokoak eta jolas-ekintza fisikoak	100 ordu	120 ordu
4. Kultur jarduerak eta baliabideak	90 ordu	100 ordu
5. Turismoaren esparruko animazioa	114 ordu	120 ordu
6. Atzerriko hizkuntza	120 ordu	160 ordu
7. Atzerriko bigarren hizkuntza	120 ordu	160 ordu
8. Lan-prestakuntza eta -orientabidea	60 ordu	60 ordu
9. Kalitatea eta etengabeko hobekuntza	40 ordu	40 ordu
10. Lantokiko prestakuntza	336 ordu	400 ordu
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.190 ordu</b>	<b>1.400 ordu</b>

1. Ikastetxe bakoitzak curriculum-proiektua bere gizarte- eta ekonomia-ingurunera eta ikasleen ezaugarrietara egokitzeko, ikastetxeek beren esku izango dute guztizko ordutegiaren %15 –kasu honetan 210 ordu– eta ordu-kopuru hau lanbide-modulu desberdinetan banatu ahal izango dute, baldin eta irakaskuntza desberdinak eskaintza oso baten parte badira.

Horrenbestez, modulu bakoitzerako ezarritako oinarrizko iraupena errespetatu egin beharko da eta aurrerago azalduko diren irizpideen arabera gehitu ahal izango da.

2. Irakaskuntzak eskaintza partzial bateko parte badira, iraupen finkoa ezarri da modulu bakoitzerako eta ezin izango da aldatu.
3. Moduluen behin betiko iraupenek, hau da, ikastetxeak berak esleitu behar duen denbora banatu ondoren, heziketa-zikloak irauten dituen 1.400 orduak osatu beharko dituzte guztira.
4. Ikastetxeetako curriculum-proiektu desberdinetan oreka egokia gordetzeko asmoz, eskaintza osoko modalitatea jarraitzen duten irakaskuntzek ondoko zehaztapena errespetatu beharko dute: lanbide-moduluek ezin izango dute oinarrizko iraupena 64 ordu baino gehiagotan gehitu.

5. Ikastetxean bertan garatu beharreko *Lantokiko prestakuntza* lanbide-moduluko fase desberdinen iraupenak ez dute ikastetxeak modulu honetarako ezartzen duen behin betiko iraupenaren %10 gainditu behar.

### 3.3.2. Sekuentziazioa

Heziketa-zikloaren sekuentziazioan

#### 1. Eskaintza osoan:

- *Lantokiko prestakuntza* modulua iraupenaren %80 gaitasun-atalei loturiko modulu guztien irakaskuntzak amaitu ondoren eman beharko da.

#### 2. Eskaintza partzialean:

- *Lantokiko prestakuntza* modulua heziketa-zikloa osatzen duten gainerako moduluak egiaztatu direnean (ondorio horretarako finkatutako bide desberdinen bidez) soilik eman beharko da.

## 4. Irakasleak

4.1. “Animazio turistikoa” heziketa-zikloko lanbide-moduluetan irakaskuntza-atribuzioa duten irakasleen espezialitateak

a) Bigarren Irakaskuntzako irakasleen kidegoan “Ostalaritza eta turismoa” espezialitatea duten irakasleek ondoko lanbide-modulu hauek irakats ditzakete:

- Astialdiko eta gizarte-heziketako enpresa txikien antolamendua eta kudeaketa.
- Kultur jarduerak eta baliabideak.
- Turismoaren esparruko animazioa.

b) Bigarren Irakaskuntzako irakasleen kidegoan “Gizarte esku-hartzea” espezialitatea duten irakasleek ondoko lanbide-modulu hauek irakats ditzakete:

- Kultur jarduerak eta baliabideak.
- Turismoaren esparruko animazioa.

c) Bigarren Irakaskuntzako irakasleen kidegoan “Gorputz-hezkuntza” espezialitatea duten irakasleek ondoko lanbide-modulu hauek irakats ditzakete:

- Animaziorako jokoak eta jolas-ekintza fisikoak.

d) Bigarren Irakaskuntzako irakasleen kidegoan “alemana”, “frantsesa”, “ingeleza”, “italiera” edo “portugesak” (aukeratutako hizkuntzaren arabera) espezialitatea duten irakasleek ondoko lanbide-modulu hauek irakats ditzakete:

- Atzerriko hizkuntza.
- Atzerriko bigarren hizkuntza.

e) Irakatsi ahal izateko LOGSE Legearen 33.2 artikuluan aurreikusitako “irakasle espezialista” bat behar duen lanbide-modulua:

- Animaziorako komunikazio-teknikak.

f) Bigarren Irakaskuntzako irakasleen kidegoan “Lan-prestakuntza eta -orientabidea” espezialitatea duten irakasleek ondoko modulu hauek irakats ditzakete:

- Astialdiko eta gizarte-heziketako enpresa txikien antolamendua eta kudeaketa.
- Lan-prestakuntza eta -orientabidea.
- Kalitatea eta etengabeko hobekuntza.

g) Heziketa-ziklo bereko beste lanbide-moduluren bat irakasten duten a), b) eta c) ataletan adierazitako espezialitatea duten irakasleek ondoko modulua ere irakats dezakete:

- Lantokiko prestakuntza.

#### 4.2. Titulazioen baliokidetasunak irakaskuntzan aritzeko

4.2.1. “Ostalaritza eta turismoa” espezialitateari dagozkion lanbide-moduluak irakasteko, doktore-, ingeniari-, arkitekto- edo lizentziatu-tituluen eta ondoko tituluen arteko baliokidetasuna ezartzen da irakaskuntzan aritzeko:

- Turismoan diplomatua.

4.2.2. “Lan-prestakuntza eta -orientabidea” espezialitateari dagozkion lanbide-moduluak irakasteko, doktore-, ingeniari-, arkitekto- edo lizentziatu-tituluen eta ondoko tituluen arteko baliokidetasuna ezartzen da irakaskuntzan aritzeko:

- Enpresa-zientzietan diplomatua.
- Lan-harremanetan diplomatua.
- Gizarte-lanean diplomatua.
- Gizarte-hezkuntzan diplomatua.
- Kudeaketa eta administrazio publikoan diplomatua.

4.2.3. “Gizarte esku-hartzea” espezialitateari dagozkion lanbide-moduluak irakasteko, doktore-, ingeniari-, arkitekto- edo lizentziatu-tituluen eta ondoko tituluen arteko baliokidetasuna ezartzen da irakaskuntzan aritzeko:

- Maisua (espezialitate guztiak).
- Gizarte-hezkuntzan diplomatua.
- Gizarte-lanean diplomatua.

### **5. Irakaskuntza hauek emateko gutxieneko baldintzak**

#### 5.1. Espazioak

Apirilaren 30eko 777/1998 Errege Dekretuko 19. artikulua araberan, “Animazio turistikoa” goi-mailako Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ondoren adierazitako gutxieneko espazioak eskatzen ditu dekretu honek definitzen dituen irakaskuntzak emateko.

<b>Prestakuntza-azalera</b>	<b>Azalera 20 ikasle (m<sup>2</sup>)</b>	<b>Erabilera-maila (%)</b>
Gimnasioa .....	90	15
Ostalaritza-lantegia .....	90	40
Gela balioanitza .....	60	45

“Erabilera-mailak” ikasle-talde batek oinarrizko irakaskuntzak irakasteko espazioa zenbat orduz okupatzea aurreikusten den adierazten du; alabaina irakaskuntza hauen guztizko iraupenarekiko ehunekoetan adierazten da. Horrenbestez, ikastetxeek curriculumaren guztizkoa ezartzeko definitzen dutenerako orientagarria da.

“Erabilera-mailak” onartutako marjinan, heziketa-ziklo bereko edo beste ziklo batzuetako edo beste hezkuntza-etapa batzuetako beste ikasle-talde batzuek okupatu ahal izango dituzte ezarritako prestakuntza-espazioak.

Dena dela, prestakuntza-espazioei lotutako ikaskuntza-jarduerak (erabilera-mailak adierazitako okupazioarekin) antzeko beste prestakuntza-jarduera batzuetarako erabilitako azaleretan ere burutu ahal izango dira.

Identifikatutako prestakuntza-espazio desberdinak ez dira zertan itxitura bidez bereizi behar.

## **6. Sarbideak eta/edo ibilbideak**

Heziketa-ziklo honetan onartua izateko, batxilergoko ondoko modalitate hauek izango dute lehentasuna:

- Giza eta gizarte-zientziak.
- Arteak.

### **6.1. Oinarrizko Lanbide Heziketa**

Heziketa-ziklo honetan lantzen den Berariazko Lanbide Heziketaren oinarri den Oinarrizko Lanbide Heziketa osatzen duten edukiak batxilergoko ondoko jakintzagaietan aurki ditzakegu:

- Geografia.
- Atzerriko bigarren hizkuntza.

Gainera, eskaeren kopuruak eskainitako ikaspostuena gaindituz gero, *Atzerriko bigarren hizkuntza* jakintzagaia onarpenerako kontuan hartuko da.

### **6.2. Unibertsitate-ikasketetarako sarbidea:**

- Turismoan diplomatua.
- Enpresa-zientzietan diplomatua.
- Gizarte-lanean diplomatua.
- Gizarte-hezkuntzan diplomatua.

## **7. Konbalidazioak eta korrespondentzia**

## 7.1. Lanerako Lanbide Heziketarekin konbalida daitezkeen lanbide-moduluak

- Kultur jarduerak eta baliabideak.
- Animaziorako jokoak eta jolas-ekintza fisikoak.

## 7.2. Lan-praktikarekin korrespondentzia izan dezaketen lanbide-moduluak

- Animaziorako komunikazio-teknikak.
- Kultur jarduerak eta baliabideak.
- Animaziorako jokoak eta jolas-ekintza fisikoak.
- Lantokiko prestakuntza.
- Lan-prestakuntza eta -orientabidea.